

Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian 2001-2010



10 URTEKO
TXOSTENA

Liburu honetan agertzen diren datuak, informazioa etab. baliatu nahi izanez gero, iturria aipatu.

Izenburua: Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian, 2011n

Mota: 10 Urteko txostena

Egilea: Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Legezko Gordailua: **NA-3657/2011**

© HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Marcelo Zelaieta 75

31014 – Iruñea

www.behatokia.org

Arsenal plaza, 1

64 100 – Baiona

AITZINSOLASA

Hamar urtez, baina ixteko bokazioz

Atrebentzia bada ere, hamar urteko bilana jasotzen duen txosten honen hitzaurrea lehen pertsonan idatziko dut. Atariko atala beste ardura baten ondorioz idatzi behar badut ere, ezin dut bat-batean pentsamendutik kendu Behatokiak azken hamar urteotan hartu didan tokia.

Pasaporte ateratzera joan eta euskarazko zerbitzurik jaso ez. Halaber, oso tratu eskasa jaso zuen: erdaraz hitz egin ezean, kalera joateko agindua jaso ere egin zuten. Horixe izan zen 2001eko udazkenean Behatokiak kudeatu zuen lehen urraketa, 1/2001 espediente hain zuzen ere. 2010ean jasotako azken kasua, 1205-2010 espediente, zoriona izan zen: 2010eko abenduan Bartzelonara joan zen Gipuzkoako irrati baterako Bartzelona-Erreala partidaren emankizuna egitera eta Bartzelona futbol taldearen argibide oharra euskara hutsez jaso zuen.

Txanponaren bi aldeak erakusten dute hamar urteetako milaka espedienteetatik aukeratu ditudan bi horiek. Halere, hori ezin da bere horretan eraman errealitatera, izan ere, zorionak Behatokiak kudeatu dituen espedienteetatik irlatxo bat besterik ez dira.

Euskaraz bizitzeko hautuari determinazioz eutsi eta oztopoak izan dituzten herritarren bizipenak kudeatu ditu Behatokiak hamar urte hauetan. Espediente bakoitza modu zorrotzean sailkatu eta landu du, urraketa eragin duenari horren berri eman dio, herritarrari espedientearekin jarraitutako prozeduraren berri zuzena helarazi dio... Lan handia, baina eraginkorra.

Espedienteen kudeaketarekin batera, Behatokiak urtero hizkuntza-eskubideen egoeraren argazkia egiteko ardura hartu zuen. Ez da, ez, horrelako argazkiak egiten dituen erakunde bakarra. Oinarrizko edota giza eskubideen defentsan lan egiten duten bestelako erakundeek ere urteroko argazkia egiten dute. Hori horrela izanik ere, Behatokiak oso argi zuen gizarteari erakutsi beharreko argazkiak non izan behar zuen iturria: herritarren bizipenak.

Gauzak horrela aurreko urteetan diagnosi edo argazkia eskaini izan du Behatokiak, eta hasieran atrebentzia aitortu dudanez, harrotasuna ere erantsiko diot hitzaurreari. Metodologia honek gure mugak gainditu eta eredu bihurtu da nazioartean. Horrela, Euskal Herritik kanpoko eragileek zein instituzioek zoriondu izan dute Behatokia hizkuntza-eskubideen egoeraren diagnosiak egiteko erabiltzen duen prozedurarengatik.

Zorionak jaso bai, baina egoerak bere horretan dirau, eta akaso hori da txanponaren beste aldea. Lortu du Behatokiak herritarrak hizkuntza-
eskubideen urraketan aurrean aktibatzea, baina ez du lortu administrazioek
neurri bereko erantzuna ematea. Hamar urteko ibilbidea jasotzen duen
txostenak halaxe jasotzen du behinik behin.

2001. urteko lehen ondorio nagusiak 2010. urteko lehen ondorio nagusia
izaten jarraitzen du: Hizkuntza-
eskubideak Euskal Herri osoan eta
administrazio guztiek urratzen dituzte. Eta ondorioa urterik urte errepikatzen
dela ikusita, zalantza bat sortu zait: Beharrezkoa al da Behatokia, ondorio
bertsuak aterako baditu?


Erantzuna bat eta bakarra da: Behatokia inoiz baino beharrezkoagoa da
euskararen herrian. Zorionez, gero eta gehiago gara gure herrian euskaraz bizi
nahi dugun herritarrak. Are gehiago, euskaraz bizitzeko hautu kontzientea
gero eta zabalagoa da Tuteratik Balmasedara, Mauletik Ordiziara. Euskaraz
bizi diren herritar horiek badakite oztopoak jarriko dizkietela, baina jakin
bezate Behatokia ondoan izango dutela hizkuntza-
eskubideen urraketan aurrean eragiteko. Orain dela hamar urte horrela zen, eta gaur egun ere
horrela da.

Dena den, badugu itzaropena. Hizkuntza-
eskubideen inguruko argazkirik behar
izango ez dugun eguna etorriko da; eta une horretan Behatokiak jakingo du
zer egin: Ateak itxi.

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

AURKIBIDEA

1.	Hizkuntz Eskubideen Behatokia	6
2.	2001-2010 urteetan bildutako datuak	15
2.1.	Datu orokorrak	17
2.2.	Herritarren jatorria	19
2.3.	Espedienteen izaera	22
2.4.	<i>Euskararen telefonoa</i> zerbitzuaren bidez jasotako datuak	22
2.4.1.	Erakunde, instituzio edota administrazio publikoek zuzenean eragindako kexak	22
2.4.2.	Administrazioetatik kanpoko gizarte-eragileek eta eremu sozioekonomikoan eragindako kexak	23
2.4.3.	Zoriontze edo nabarmentze positiboak	24
2.4.4.	Bideratu gabeko espedienteak	25
2.4.5.	Kontsultak	26
2.5.	Behatokiaren ekimenak	26
3.	Datuak aztertzeko metodologia	28
3.1.	Datuak irakurtzeko irizpideak	
3.2.	Sailkapena	
3.3.	Adierazleak	
4.	Administrazioa eta haren erakunde ofizialak	34
4.1	Sarrera	35
4.1.1.	Ipar Euskal Herriko Administrazioa	36
4.1.2.	Nafarroako Foru Erkidegoa	43
4.1.3.	Euskal Autonomia Erkidegoa	50
4.1.4.	Espainia Estatuko Administrazioa	57
5.	Administrazioetatik kanpoko gizarte-eragileak eta eremu sozioekonomikoa	62
5.1.	Ipar Euskal herria	64
5.2.	Hego Euskal Herria	65
5.2.1.	Nafarroako Foru Erkidegoa	65
5.2.2.	Euskal Autonomia Erkidegoa	67
6.	Ondorioak	71



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS
OBSERVATOIRE DES DROITS LINGUISTIQUES
OBSERVATORY OF LINGUISTIC RIGHTS

- 1.1. Sorrera, xedea eta lan-ildoak
- 1.2. Babesaren objektua: Hizkuntza-eskubideak
- 1.3. Behatokiaren proiektuak

1.1. SORRERA, XEDEA ETA LAN ILDOAK

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, hizkuntzaren normalizazioan atzerapausoak ezin onar zitezkeelako, Behatokia abian jartzea erabaki zuen. Behatokia sortu aurreko urteetan euskalgintzako eragile nagusienak biltzen dituen erakundea zenbait gabeziak oharturik zegoen. Euskararen eremu batzuetan normalizazioaren kontrako eta hizkuntza-eskubideen urraketa aktiboen aldeko politika bortitzak ari ziren abian jartzen; euskararen beste eremu batzuetan, berriz, ez ziren behar bezalako aurrerapausoak ematen ari. Halaber, indukzioz, Euskal Herri osoan hizkuntza-eskubideak urratzen zirela ohartu zen Kontseilua.

Gauzak horrela, hori guztia objektibatuko zuen erakunde independente baten beharra ikusirik, 2001eko ekainaren 26an gizartearen aurrean aurkeztu zuen Hizkuntz Eskubideen Behatokia, euskalgintzako eta sindikalgintzako hainbat eragileren babesarekin.

Izan ere, hizkuntza-eskubideen inguruko azterketa objektiboak egingo badira, ezinbestekoa da erakunde publiko edo pribatuen mendekotasunik gabe beteko duen erakunde batek hartzea lan horren ardura eta horrexegatik, Behatokiak neutraltasun eta independentzia osoz dihardu eta Kontseilua ez den beste edozein erakunde publiko edo pribaturen mendekotasunik gabe bete eta betetzen du bere lana.

1.2. BABESAREN OBJEKTUA: HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Hizkuntza-eskubideen inguruko diagnosiak egiteak badu ezer egin aurretik garbitu beharreko auzia, alegia, zein hizkuntza-eskubide aitortu behar zaie herritarrei, eta gure kasuan, euskaldunei?

Izan ere, euskararen lurraldea hedaduraz txikia izanik ere, euskal hizkuntza-komunitatea bost/zazpi estatus juridikoren mende dago, eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Horrela, euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko diagnostia egun indarrean dauden ordenamendu juridikoen arabera eginez gero, hainbat kasutan eskubideak ez direla urratzen ondoriozta genezake. Izan ere, eremu batzuetan legeak berak arautzen dituelako eskubideen urraketak. Hizkuntza-eskubideen diagnosi orekatua egiteko, beraz, ezinbestekoa da beste erreferentzia bati lotzea.

Bestalde, hizkuntza-eskubideen gaia gutxiengoei lotuta agertu da beti, izan ere, talde horietako kideek pairatzen dituzte eskubide ezaren ondorioak. Hartara, hizkuntza nagusi bati buruz, edo Estatuetakoa hizkuntzez, ari bagara zalantzarik ez dago arras bermatuta dituztela erabilera, errespetua zein biziraupena, eta horren ondorioz, ez dela beharrezkoa horien babeserako neurririk abian jartzea.

Berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea norberari datxekiona da eta norberaren duintasunaren barruan kokatu behar dugu. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren lehenengo artikularen arabera: Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute. Horrela, hizkuntza erabiltzeko eskubidea gizabanakoon oinarritzko eskubidea da, gizabanakoon nortasuna eta duintasunari lotzen zaion eskubidea.

Baina hizkuntzak ez zaizkie pertsoneri bakarrik lotzen, alegia, norbanakoek ez ezik hiztun taldeek ere izan behar dituzte hizkuntza-eskubideak. Hizkuntza-eskubidea, beraz, indibiduala eta kolektiboa da. Ez dago hizkuntzaren kontzeptua ulertzerik hizkuntza hori mintzo den jendartetik bereizita. Hizkuntzak duen ikuspegi komunitarioa da talde bakoitzak zeinek bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea arautzeko oinarria.

Nazioartean eremuan ez dugu hizkuntza-eskubideen inguruko definizio argirik aurkitu araudi batean ere; ez eta hizkuntza-eskubideak zerrendatzen dituen nazioarteko tresnarik ere.

Ez da Behatokia izan hizkuntza-eskubidea kontzeptuaren adiera hori proposatu duen lehena, ez eta bakarra ere. 1996an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minorities Ètniques i les Nacions) erakundeek sustatu eta UNESCO erakundeak babestutako Hizkuntz Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Bertan 66 Gobernuz Kanpoko Erakunde, PEN International erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten.

Deklarazioaren arabera hizkuntza-eskubideen izaera indibiduala eta kolektiboa banaezina da. Are gehiago, elkarren osagarri dira, hizkuntza komunitate batean garatzen baita eta, aldi berean, komunitate horren barruan norbanakoak erabiltzen baitu eta hartaz baliatzen baita. Horrela, norbanakoaren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira baldin eta hizkuntza-komunitate guztien hizkuntza-eskubideak modu berean errespetatzen badira.

Beste alde batetik, gurea bezala, Estatu eta egitura administratibo desberdinetan bizi diren hizkuntzei dagokienez, Deklarazioaren arabera hizkuntza-eskubideak ezin dira geratu estatus politiko-juridiko edo administratibo baten mende, edota hiztun kopurua bezalako irizpideen mende ere. Hartara, hizkuntza komunitate guztiek eskubide berdinak dituztela adierazten du, eta bereizketarik ezin egin daitekeela agertzen du. Gainera hizkuntza-eskubideen subjektu gisa hartzen ditu hizkuntza-komunitateak, alegia, edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatua, bere burua herritzat daukana eta hizkuntza komun bat garatu duena.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala 1996an onartu bazen ere, gaur egunera arteko ibilbidea ez da behar bezain emankorra izan.

Deklarazioa sinatutakoan UNESCO erakundeko idazkari Federico Mayor Zaragozari helarazi zitzaion. Gizarte zibilak UNESCOren mahai gainean instituzio horretan lanerako ildo gisa hizkuntza eskubideak kontuan hartu beharra eta abiapuntu gisa Bartzelonako Deklarazioa kontuan hartzeko eskatu zion. Izan ere, prozesuaren azken helburua oso argia zen: UNESCOk gomendioa egin ziezaiola Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrari Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa bere egiteko edota Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri gisa onartzeko

Lehen bi urteetan aurrerapauso interesgarriak izan ziren. Horrela, Hizkuntzen barrutia sortu zen, edota, Mayor Zaragozaren agintearen azken urtean Hizkuntza Aniztasunaren Komite Batzorde Kontsultiboa eratu zen. Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Jarraipen Batzordea haiekin bildu eta Deklarazioaren azterketa eta hizkuntza eskubideei buruzko testu berri baten prestakuntza helburutzat hartu zuen Batzordeak.

Baina Koichiro Maatsura jaunak Mayor Zaragozaren ardura hartu zuenean, gauzak zeharo aldatu ziren. Batetik, Hizkuntzen Barrutia desagertu zen ustezko arrazoi ekonomikoengatik eta solaskidetzarik ez da izan ordutik UNESCOrekin.

Hala ere, saiakera berriak egin izan dira Hizkuntz Eskubideen Deklarazioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko. 2007an Deklarazioaren jarraipen-batzordeko bi kide Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko presidentearekin bildu ziren dokumentuaren berri emateko. Halaber, NBEko Itun ofizial bihurtzeko prozedurari buruzko informazio xehea eskuratu zuten.

Aipatzekoa da, esaterako, 2008ko irailean Giza Eskubideen Batzordearen bederatzigarren lan-taldean aurkeztu zela, berriz ere, hizkuntza-eskubideen afera, Nazio Batuek aipatu eskubideak babesteko nazioarteko itun bat abian jar dezaten eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri izan dadin.

1.3. BEHATOKIAREN PROIEKTUAK

Azkenik, Hizkuntz Eskubideen Behatokia abian dituen proiektuei buruzko zenbait informazio jaso dugu. Izan ere, babesgai den objektu horretan eta lehen puntuan aipatutako xedeetan oinarriturik Behatokiak zenbait lan alor jorratzen ditu:

- *Euskararen telefonoa* zerbitzua
- Egoerari buruzko txostenen prestakuntza
- Hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketaren sustapena.
- Egoera nazioartean zabaltzea.

a). EUSKARAREN TELEFONOA

2001eko abenduaren 21ean abian jarritako zerbitzu publikoa dugu *Euskararen telefonoa*. Zerbitzu horretarako bi linea ditu zabalik Behatokian (Hego eta Ipar Euskal Herrian), bai eta webgune berezitua ere (www.euskararentelefonoa.com). Horrela, herritarrek modu erosoago eta arinagoan balia dezakete zerbitzua.

Euskararen telefonoa zerbitzuaren bidez hiru motako deiak bideratzen ditu Behatokiak: Kexa egiteko deiak -euskara erabiltzeko eskubideak errespetatu ez bazaizkie-, zoriontzeko deiak -hizkuntza-eskubideak bereziki ongi zaintzen dituzten erakunde publiko zein pribatuen jokabide eredugarria zoriondu nahi izanez gero- eta argibidea eskatzeko deiak -hizkuntza-eskubideen inguruko aholkularitza hartzeko-. Horrela, Behatokiak herritarren deiak modu sistematiko batez biltzen ditu.

Behatokiak espediente bakoitzarekin oso protokolo zorrotzari eusten dio. Horrela lehenik eta behin espedientea irekitzen dio kasu bakoitzari, eta erregistro zenbakia esleitzen dio: espediente zenbakia/urtea, adibidez, 1/2009. Espedientea zabaldutakoan, aztertu egiten du eta izaera ematen dio kexatzea edota zoriontzea bada. Ondoren, ahalik eta datu gehien jasotzen saiatzen da eta, ahal izanez gero, izaera emateko justifikazioa bilatzen du; esate baterako, webgune baten inguruko kexa baldin bada, Behatokiak egiaztatuko du herritarrak helarazitakoa benetakoa dela. Hizkuntza-eskubideen urraketen zantzurik ez badago, Behatokiak ez dio espedienteari kexa-izaera ematen, nahiz eta espedientea gorde egingo duen.

Espedienteari izaera esleitutakoan kexa edo zoriontzea eragin duen administrazio edo erakundeari horren inguruko erreklamazioa helarazten dio; herritarrari, berriz, espedienteak jarraituko duen prozeduraren berri ematen zaio, bai eta kexa- edo zoriontze-izaerarik aitortu ez bazaio ere.

Behatokiak ez du kexa anonimorik onartzen eta horrelakoak jaso izan dituenean ez die espedienterik zabaldu ere egin. Hala ere, Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokutzen du eta ez du herritarren daturik zabaltzen, ez eta erakundeak edo Administrazioak berariaz eskatuta ere. Oso gertaera larria izanez gero eta Behatokiak bide judizialari eusteko asmoa badu, herritarraren baimen idatzia eskatzen du.

Azken arau hori zenbaitetan ulergaitz egiten zaie administrazioei, eta ondorioz herritarren datu zehatzak eskatzen dituzte. Bost urte luzez kudeatutako espedienteen zioei erreparaturik kasurik gehienetan ez da beharrezkoa herritarra zein den jakitea, egoera zein izan den identifikatu eta horri irtenbidea ematea baizik.

b). HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENEN PRESTAKUNTZA

Behatokiak prestatzen dituen txostenak bi motakoak dira: txosten berezituak eta Urteko txostena.

Urteko txostena

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtero egoeraren inguruko argazkia egiteko ardura hartu zuen sortu zen unetik. Hartara, Urteko txostenean jasotako kasu guztietan oinarriturik hizkuntza-eskubideen egoeraren diagnosis egiten du Behatokiak. Ekarpen horri esker:

Behatokiak euskal hizkuntza-komunitateari haren egoera erreala hautemateko adierazleak eskaintzen dizkio

Urteko txostena herritarrek berek helarazitako esperientzietan oinarritutako dokumentua da. Horrela, diagnosiak pisu handiagoa hartzen du ez delako Behatokiak bere kasa induzitutako egoeren isla. Bestalde, Behatokiak euskal hizkuntza-komunitateko kideei begira erabiltzen duen berdintasun irizpideari esker, aipatu diagnosian ez da herritarren arteko bereizkeriarik egiten, egun gure hizkuntza-komunitatea estatus juridiko desberdinetan banatuta dagoen arren.

Erakunde publikoei haien jarduera hobetzeko laguntza eskaini nahi die

Behatokiak hizkuntza-eskubideen eremuan dauden beltzuneak, gabeziak... agerian jartzen ditu urteko txostenaren bidez. Kasu batzuetan, hizkuntza-eskubideak bermatzeko corpus juridiko desegokia dela, beste batzuetan, legeen inplementazioa gertatu ez dela, herritarrei hizkuntza-eskubideak urratu egiten zaizkie Euskal Herri osoan. Hartara, Behatokiak diagnosi hori ekarpen gisa aurkeztu nahi die erakunde publikoei, pribatuei zein euskalgintzako edota gizarte eragileei ere.

Txosten berezituak

Txosten berezituetan gai monografikoak lantzen ditu Behatokiak. Unean uneko gai interesgarrienak edota, Behatokiaren aburuz, larriak diren gaiak hautatu eta horien azterketa berezitua paratzen du. Urtero bi txosten berezitu argitaratu ohi dira.

Orain arte argitaratutako txostenak Behatokiaren webgunean daude eskuragarri:

1. Adin txikikoen zigor-epaitegiak eta hizkuntza-eskubideak Hego Euskal Herrian 2001ean.
2. Nafarroan aplikatzen den hizkuntza-politika Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren ikuspegitik.
3. Shut down of *Euskaldunon Egunkaria* newspaper.

4. Espainiako Estatuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak.
5. Hizkuntza-eskubideak eta hezkuntza Euskal Herrian: Egoeraren diagnosia
6. Europako Itun Konstituzionalaren azterketa hizkuntza-eskubideen ikuspegitik
7. Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna euskarari aplikatzearen ebaluazioa.
8. Language Rights and the Courts in the Basque Country.
9. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian.
10. Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Ituna euskarari aplikatzearen bigarren ebaluazioa.
11. Aseguru-kontratuak eta hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian.
12. Postontzietako publizitatea eta hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian.

c). HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN INGURUKO HAUSNARKETAREN SUSTAPENA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak oso garrantzitsutzat jotzen du hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketa sustatzea. Batetik, kontuan izan behar dugu, arestian aipatu bezala, Euskal Herritar guztiek ez dituztela legez aitortuta eskubidea eta horren ondorioz, eskubide gabeturik daudela uste dute. Bestalde, hizkuntza-eskubideen urraketa zabal eta sistematikoak euskal hitzunik euren hizkuntza-eskubideez duten pertzepzio subjektiboan du eragina eta horrexegatik Euskal Herrian euskaldun jendeak luzez bizi izandako legezko gutxiagotasun eta menpekotasunak egungo egoera naturalizatzea ekarri du.

Egoera hori kontuan harturik, Behatokiak hainbat ekimen bultzatu ditu. Batetik, hizkuntza-eskubideak gaztetxoekin lantzeko tresna bat eskaini zuen, hain zuzen ere, gaztetandik hizkuntza-eskubideen inguruko kontzientzia sustatzeko eta geure hizkuntza-komunitateko kide diren heinean, hizkuntza-eskubideen aldeko mezua barneratzeko. Horrela, Behatokiak hizkuntza-eskubideak, hizkuntza-aniztasuna, egungo ordenamendu juridikoa... lantzeko unitate didaktikoa argitaratu du.

Bestalde, Behatokiak eztabaidarako foro berri bati eman zion hasiera Nazioarteko I. Sinposioaren bidez. Bertan Euskal Herriko zein kanpoko profesionalak bildu zituen eta elkarren esperientzien berri trukatzeko aukera eskaini nahi izan zen, hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketa sustatzeko eta hezkuntza-sistemak hizkuntza-eskubideak bermatzeko abian jarri behar dituen mekanismoak definitzeko.

d). HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN EGOERA NAZIOARTEAN ZABALTZEA


Azkenik, Behatokiaren lan ildo garrantzitsuenetako bat hizkuntza-eskubideen egoera nazioartean zabaltzea da. Ezinbestekoa da nazioartean euskaldunoi eta hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko informazio zuzena helaraztea eta nazioarteko guneetan gure hizkuntza-komunitatearen ahotsa barreiatzea. Horretarako zenbait bide baliatzen ditu Behatokiak.

Batetik, lau hilero Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen inguruko aldizkari digitala argitaratzen du. *Behatokia Newsletter* aldizkaria munduko osoko 400 pertsonak eta erakundek jasotzen dute modu sistematikoan.

Behatokiak mundu mailako biltzarretan eta erakundeetan Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen egoeraren berri ematen du. Hartara, Behatokia nazioarteko hainbat erakundetara izan da, besteak beste, Europako Parlamentua edota Nazio Batuen Erakundeak; bai eta beste zenbait forotan ere: Lisboan, Galizian... Horrezaz gainera, hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko azterketa berezituak prestatu eta zabaltzen ditu. Aipatzekoa da

Bestalde, 2008 urtean nazioarteko hainbat instituziotan parte-hartze zuzena izan du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak. Azpimarratzekoa da Nazio Batuen Erakundeko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen 40. Batzordean parte-hartze zuzena izan zuela Behatokiak, eta bertan agertu zituen kezka nagusienak Batzorde horrek argitaratu zituen gomendioetan jaso zirela.

Azkenik, gogoratu behar dugu Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Euskal Pen Club taldearekin egindako lankidetzaren harremana, zeinaren arabera Behatokiak Itzulpen eta Hizkuntza-eskubideen Batzordearen ordezkariak daraman.



2001-2010 urteetan bildutako datuak

- 2.1. **Datu orokorrak**
- 2.2. **Herritarren jatorria**
- 2.3. **Espedienteen izaera**
- 2.4. ***Euskararen telefonoa zerbitzuaren bidez jasotako datuak***
 - 2.4.1. Erakunde, instituzio edota administrazio publikoek zuzenean eragindako kexak
 - 2.4.2. Administrazioetatik kanpoko gizarte-eragileek eta eremu sozioekonomikoan eragindako kexak
 - 2.4.3. Zoriontze edo nabarmentze positiboak
 - 2.4.4. Bideratu gabeko espedienteak
 - 2.4.5. Kotsultak
- 2.5. **Behatokiaren ekimenak**

2.1. DATU OROKORRAK

Hamar urtean zehar Hizkuntz Eskubideen Behatokiak **9.514** kasu bildu ditu. Kasu horietatik **9.417** herritarrek *Euskararen telefonoa* zerbitzuaren bidez helarazitako informazioarekin Behatokiak osatu eta bideratutako espedienteak izan dira. Espediente horietatik **8.535** kexak izan dira, **338** txalotze edo zoriontzeak, eta **286** kontsultak. **262** espedientek ez dute kexa- edo zorion-izaerarik hartu.


Behatokiaren ekimenez zabaldutako hainbat espediente ere izan dira, **97** hain zuzen ere. Espediente horiek Behatokiaren lan-ildoan den prebentzio edo alde zuzeneko lanari dagozkie. Horrela, eragin handiko tokietan edo ekimenetan euskararen presentzia soziala bermatzeko saiakera egiten du Behatokiak, eta, ondorioz, hizkuntza-eskubideak ez urratzeko neurriak eskatzen ditu, beti ere, ekimen edo zerbitzua abian jarri aurretik.

Behatokiak garatutako sistemari esker, kexen gero eta jarraipen zorrotzagoa egin du eta herritarrekin zein administrazioekin harreman zuzenagoa bermatzeko aukera izan du.


Gauzak horrela, oso pozgarria da, urtez urte, Behatokiara jotzen duten herritarren kopuruak gora egiten duela ikustea, eta gizartearen esku jarri genuen zerbitzuak gero eta arrakasta handiagoa duela egiaztatzea.

Datu kuantitatiboak dagokienez, hona hemen azken hamar urteotan izandako bilakaera.


1. grafikoa: Kexen bilakaera 2002-2010 urteetan, zabaldutako espediente guztiak kontuan harturik




2. grafikoa: Zoriontzeen bilakaera 2002-2010 urteetan zabalduko espediente guztiak kontuan harturik.



3. grafikoa: Kontsulten bilakaera 2002-2010 urteetan zabalduko espediente guztiak kontuan harturik




4. grafikoa Behatokiak zabalduko espedienteen bilakaera 2002-2010 urteetan



2.2. HERRITARREN JATORRIA

Beste behin gogoratu nahi dugu espedienteen inguruko balorazioa egiten dugunean, ez diogula irizpide kuantitatiboari erreparatuko. Hau da, kexak eta eskubideen urraketak baloratzeko Behatokiak propio ezarritako irizpide kualitatiboen arabera egingo duela irakurketa. Dena den, interesgarria da zerbitzua erabiltzen duten herritarren jatorriari buruzko datuak ere kontuan hartzea.


5. grafikoa: “ ‘Euskararen telefonoa’ zerbitzuaren erabiltzaileen jatorria, herrialdeen arabera, Euskal Herrian”



Irizpide kuantitatiboari soilik erreparatuz gero, Gipuzkoan eta Nafarroan hizkuntza-eskubideak gehiago urratzen direla ondoriozta baliteke ere, tentu handiz erabili behar dira ehuneko horiek. Izan ere, badira bestelako aldagaiak herrialde bakoitzetik espediente gehiago edo gutxiago zabaltzeko.

Zalantzarik ez dago, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoak erabiltzaile gehiago ekarri beharko lizkiokeela Behatokiari, baina urraketa sistematiko horrek eragin zuzena izaten du herritarren auto-pertzepzioan eta ez du zerbitzu horretara jotzen bere burua eskubidez gabeturik ikusten duelako.

6 grafikoa: “ ‘Euskararen telefonoa’ zerbitzuaren erabiltzaileen jatorriren bilakaera, 2002-2010 urteetan.”



Azkenik, hona hemen ‘Euskararen telefonoa’ zerbitzuaren erabiltzaileen jatorriari buruzko datu xeheagoak, hiriburuetako eta herrietako erabiltzaileen batez bestekoa zein bere herrialdeari eta Euskal Herriari dagokienez:

Taulak: Erabiltzaileen jatorriaren bilakaera herrialdeka

A R A B A		B I Z K A I A	
GASTEIZ	Gainerako herriak	BILBO	Gainerako herriak
2002	2002	2002	2002
Araba % 72	Araba % 28	Bizkaia % 20	Bizkaia % 80
EH % 5,79	EH % 2,24	EH % 4,84	EH % 19,13
2003	2003	2003	2003
Araba % 67	Araba % 33	Bizkaia % 22	Bizkaia % 74
EH % 15,78	EH % 7,65	EH % 4,30	EH % 11,34
2004	2004	2004	2004
Araba % 52	Araba % 48	Bizkaia % 22	Bizkaia % 78
EH % 11,52	EH % 10,75	EH % 4,30	EH % 15,67
2005	2005	2005	2005
Araba % 30	Araba % 70	Bizkaia % 36	Bizkaia % 34
EH % 4,01	EH % 9,94	EH % 7,18	EH % 12,85
2006	2006	2006	2006
Araba % 58	Araba % 42	Bizkaia % 17	Bizkaia % 83
EH % 5,87	EH % 4,19	EH % 3,91	EH % 19,46
2007	2007	2007	2007
Araba % 53	Araba % 26	Bizkaia % 19,28	Bizkaia % 80,72
EH % 4,38	EH % 2,15	EH % 3,56	EH % 14,89
2008	2008	2008	2008
Araba % 71,43	Araba % 28,57	Bizkaia % 24,11	Bizkaia % 75,89
EH % 1,59	EH % 0,63	EH % 4,29	EH % 13,49
2009	2009	2009	2009
Araba % 51,22	Araba % 48,78	Bizkaia % 33,33	Bizkaia % 66,67
EH % 1,49	EH % 1,42	EH % 7,12	EH % 14,23
2010	2010	2010	2010
Araba % 40	Araba % 60	Bizkaia % 23,55	Bizkaia % 76,45
EH % 0,66	EH % 0,99	EH % 4,37	EH % 14,18

G I P U Z K O A				N A F A R R O A			
DONOSTIA		Gainerako herriak		IRUNEA		Gainerako herriak	
2002		2002		2002		2002	
Gipuzkoa	% 31	Gipuzkoa	% 69	Nafarroa	% 79	Nafarroa	% 22
EH	% 12,04	EH	% 26,45	EH	% 23,02	EH	% 6,49
2003		2003		2003		2003	
Gipuzkoa	% 49	Gipuzkoa	% 51	Nafarroa	% 54	Nafarroa	% 46
EH	% 17,02	EH	% 18,38	EH	% 14,25	EH	% 12,17
2004		2004		2004		2004	
Gipuzkoa	% 46	Gipuzkoa	% 54	Nafarroa	% 27	Nafarroa	% 73
EH	% 11,52	EH	% 10,75	EH	% 4,30	EH	% 15,67
2005		2005		2005		2005	
Gipuzkoa	% 59	Gipuzkoa	% 41	Nafarroa	% 18	Nafarroa	% 82
EH	% 24,03	EH	% 16,44	EH	% 4,70	EH	% 20,06
2006		2006		2006		2006	
Gipuzkoa	% 46	Gipuzkoa	% 54	Nafarroa	% 57	Nafarroa	% 43
EH	% 14,90	EH	% 17,32	EH	% 19,65	EH	% 14,71
2007		2007		2007		2007	
Gipuzkoa	% 51,38	Gipuzkoa	% 48,62	Nafarroa	% 54,11	Nafarroa	% 45,89
EH	% 12,32	EH	% 11,66	EH	% 21,26	EH	% 18,03
2008		2008		2008		2008	
Gipuzkoa	% 24,81	Gipuzkoa	% 75,19	Nafarroa	% 64,79	Nafarroa	% 35,21
EH	% 7,86	EH	% 23,81	EH	% 22,78	EH	% 12,38
2009		2009		2009		2009	
Gipuzkoa	% 40,31	Gipuzkoa	% 59,69	Nafarroa	% 62,04	Nafarroa	% 37,96
EH	% 12,88	EH	% 19,07	EH	% 11,67	EH	% 12,81
2010		2010		2010		2010	
Gipuzkoa	% 35,7	Gipuzkoa	% 64,3	Nafarroa	% 45,31	Nafarroa	% 54,69
EH	% 7,01	EH	% 12,61	EH	% 17,55	EH	% 21,19
IPAR EUSKAL HERRIA							
2007		2008		2009		2010	
EH	% 11,75	EH	% 13,17	EH	% 12,84	EH	% 21,43

2.3. ESPEDIENTEEN IZAERA

Ondoren aurkeztuko dugun taulan Behatokiak 2001-2010 urtean zabaldu dituen espedienteen izaera zehaztu da:

JATORRIA	MOTA	KOPURUA
Herritarrek helarazitakoak	Kexak	8535
	Zoriontzeak	338
	Izaera gabeak	262
	Kontsultak	286
Behatokiaren ekimenak	Aldez aurreko lana	97
KASUAK OROTARA		9.514

Kexei dagokienez, eta eremua kontuan hartuta, 10 urte hauetan eremu edo administrazio publikoekin lotura zuzena duten kexak nagusitu dira. Bideratutako kexen % 64,79 instituzio zein administrazio publikoen ingurukoak izan dira; % 35,21 aldiz, administrazio zein erakunde publikoetatik kanpoko eragileek, enpresek, zerbitzu-emailek eta abarrek eragindakoak izan dira.

2.4. 'EUSKARAREN TELEFONOA' ZERBITZUAREN BIDEZ JASOTAKO DATUAK

2.4.1. ERAKUNDE, INSTITUZIO EDOTA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZUZENEAN ERAGINDAKO KEXAK

Erakunde eta instituzio publikoei dagokienez, hona hemen 2001-2010ean herritarren kexak hartu dituzten erakundeak:

ERAKUNDEA	KOPURUA
Ipar Euskal Herriko Administrazioa	221
Espainiako Estatuko Administrazioa	707
Legebiltzarrak	27
Eusko Jaurlaritza	1022
Nafarroako Gobernua	1031
Arabako Foru Aldundia	42
Bizkaiko Foru Aldundia	107
Gipuzkoako Foru Aldundia	182
Udalak	
Herriko Etxeak	360
EAEko Udalak	848
Nafarroako Udalak	483
OROTARA	5.530

2.4.2. ADMINISTRAZIOETATIK KANPOKO GIZARTE-ERAGILEEK ETA EREMU SOZIOEKONOMIKOAN ERAGINDAKO KEXAK

Administrazio, instituzio zein erakunde publikoetatik kanpoko eragile, enpresa edota zerbitzu-emaleei dagokienez, hona hemen 2001-2010ko urteetan herritarren kexak hartu dituzten alorrak edo esparruak:

EREMUA	KOPURUA
Interes orokorreko zerbitzuak	543
	825
Merkataritza gune handiak, kateak denda erraldoiak	
Aisialdia/kirola/kultura/hedabideak	441
Aseguruak eta finantzak	325
Mundu asoziatiboa	431
Elikadura eta ostalaritza	161
Profesionalak, zerbitzuak eta merkataritza txikia	279
OROTARA	3.005

2.4.3. ZORIONTZE EDO NABARMENTZE POSITIBOAK

Herritarrek hainbat enpresa zoriondu nahi izan dituzte beren hizkuntza- eskubideak bermatzearren agertu dituzten jarrerak.

Urte hauetan guztietan zoriontzeen zioak arras desberdinak izan dira: etiketetan euskara lehenestea edota euskara hutsean egotea, publizitatean informazio guztia euskaraz ere egotea, hainbat webgunetan euskararen presentzia orekatua izatea, etab.

Jarraian, 2001-2010 epealdian zoriontzeak edo txalotzeak jaso dituzten enpresak eta zergatiak azaltzeko zenbait adibide:

Zenbakia: 59/2001	FORUM	
Arrazoa:	FORUM enpresak Usurbilgo Urbil merkataritza zentroan duen egoitzan euskararen presentzia egokia da eta langileak euskaldunak dira.	
Zenbakia: 85/2001	ALDAY TECHNOLOGICS	
Arrazoa:	Umeentzako ordenagailu jostailuak merkaturatu izanak txalotzea merezi du haur euskaldunei orain arte ez zuten aukera bat eman baitie.	
Zenbakia: 144/2002	Zurbano Gasolindegia	Araba
Arrazoa:	Zurbano gasolindegiko kartel gehienak ele bietan zeuden (euskaraz eta gaztelaniaz), gasolina botatzeko makinak euskaraz egiten zuen megafoniaren bidez eta bertako langileak zerbitzua euskaraz eskaini zion.	
Zenbakia: 477/2002	L'AQUARIUM BARCELONA	Bartzelona
Arrazoa:	Bartzelonako Aquariuma ezagutzeko egindako bisitan Aquariumeko langileak bisitariak euskaldunak zirela konturatuta, euskara hutsezko biorriko informatiboa eskaini zieten.	
Zenbakia: 153/2004	IMAGINARIUM	Bizkaia
Arrazoa:	Dendetako kartelak, txartelak, liburuxkak eta publizitatea euskaraz daukate. Kasu batzuetan gainera euskara hutsez.	
Zenbakia: 73/2005	PEDRO LUIS KONTSERBAK	Nafarroa
Arrazoa:	Web gunea euskaraz ere badago	
Zenbakia: 438/2005	NAFARROAKO EHIZA FEDERAZIOA	
Arrazoa:	Kodes mendizerrako bordan txartelak ele bietan jarri dituzte.	
Zenbakia: 451/2006	BASMODEC	
Arrazoa:	BASMODEC saltokiak etxeetara banatutako udaberriko eskaintza bereziari dagokion publizitatean euskara lehenetsi dute.	
Zenbakia: 488/2006	MEDICAL ÓPTICA	
Arrazoa:	Gasteizko etxeetan banatutako eskuorrian euskararen presentzia orekatua da gaztelaniarekiko	
Zenbakia: 355/2007	VUELING AIRLINES	
Arrazoa:	Apirilaren 9an hegaldia erosteko gestio guztia euskaraz egiteko aukera izan zuen. Bidali zizkioten oharrak eta mezuak euskaraz zeuden. Hegaldia aldatzeko erantzungailuan utzitako mezua ere euskaraz zegoen.	
Zenbakia: 140/2008	NETTO	
Arrazoa:	Otsailaren erdialdean jasotako <i>Gure bezeroak Txerri Aparta Ziurtatuarekin sarituko ditugu</i> izeneko eskuorrian eta 2007ko urte bukaerako bonuaren berri ematen duen publizitate/gutunean informazioa euskaraz dago.	
Zenbakia: 853/2008	LE JOURNAL DU PAYS BASQUE	
Arrazoa:	Publizitatea kontratatzerakoan faktura euskaraz edo gutxienez bi hizkuntzetan igortzeko galdegin zien, eta euskaraz igorri zioten.	

Zenbakia:1112/2008	SARAKO HERRIKO ETXEA	
Arrazoa:	Herriko etxeko seinaleetika ele bietan da.	
Zenbakia:59/2009	SIMON COLL S.L.	
Arrazoa:	Txokolatzeko Olentzeroak inguratzen dituen paperean osagaiei dagokien informazioa euskaraz ageri da.	
Zenbakia:111/2009	ISTURITZEKO ETA OTSOZELAIKO HARPEAK	
Arrazoa:	Martxoaren 31n 14° sous les plis... 14° izurpetan / Isturitze Otsozelaia izeneko mezu elektronikoa jaso zuen eta informazioa euskaraz ere badakar.	
Zenbakia:658/2009	ZARA	
Arrazoa:	Webgunea euskaraz kontsulta daiteke	
Zenbakia:670/2009	ADAS	
Arrazoa:	Etxez etxeko laguntza/enpresak zabalduetako publizitatea euskaraz ere dago idatzita.	
Zenbakia:1028/2009	MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA	
Arrazoa:	Apirilaren 11 eta ekainaren 28a bitartean Miarritzeko Sainte Eugénie kriptan <i>Bidaia Himalaian</i> izeneko erakusketa iragartzeko esku/orrietan informazioa euskaraz ere bazegoen.	
Zenbakia:1396/2009	BAQUÉ KAFAEK	
Arrazoa:	Azukre/zorroa euskara hutsean dago idatzita.	
Zenbakia:434/2010	AMAYA K.E.	Nafarroa
Arrazoa:	AMAYA KIROL ELKARTEAK euskaraz bidali dio bazkideari apirilaren 24ko batzar orokor Arruntaren eta Bereziaren, nahiz apirileko promozioaren berri ematen duen jakinarazpena.	
Zenbakia:1179/2010	ZUMAIAKO TALASOTERAPIA	Nafarroa
Arrazoa:	Zumaiaiko Zelai Talasoterapian lehen hitzetik euskaraz eta euskara onean eman zioten zerbitzua. Esku/orriren bat edo beste ezik, gainerako guztia euskaraz zegoen	
Zenbakia:1205/2010	BARCELONA F.C.	Gipuzkoa
Arrazoa:	2010eko abenduan Bartzelonara joan zen Gipuzkoako irrati baterako BARTZELONA/REALA partidaren emankizuna egitera eta Bartzelona futbol taldearen argibide oharra euskara hutsez jaso zuen	

2.4.4. BIDERATU GABEKO ESPEDIENTEAK

a. Izaera gabeko espedienteak

Herritarrek kexa edo zoriona helarazita, Behatokiak zioaren azterketari ekiten dio. Zenbaitetan herritarrek eskubidea urratu zaiela uste badute ere, ez da horrela izan; beste batzuetan, herritarra ez da ohartu eskubidea bermatzeko bitartekoak bazirela. Kasu horiei guztiei ez zaie kexaren izaera ematen.

Halaber, Behatokiak hainbatetan kexen zioa egiaztatzen du eta izaerarik ez badu, automatikoki bihurtzen du izaera gabeko espediente, edota kexa jaso duen erakundeak herritarrak esandakoari kontra-jartzen zaizkion datuak edo frogak helaraziz gero.

b. Datuak falta dituzten espedienteak

Zenbaitetan ezinezkoa izan da espedientea bideratzea herritarrek ez dituelako gertaerari buruzko zenbait datu eman. Behatokia herritarrekin harremanetan jarri da datu horiek eskatzeko, baina hiru hilabeteko epean erantzunik jaso ez bada, espedientea bideratu gabe uzten du.

2.4.5. KONTSULTAK

Herritarrek hizkuntza-eskubideen dituzten kontsultei ere erantzuten die “Euskararen telefonoa” zerbitzuak. Horietarik gehienak hizkuntzaren corpus juridikoari buruz izaten dira, hain zuzen ere, legeek zer nolako babesa ematen dien jakitea.

2.5. BEHATOKIAREN EKIMENAK


Aldez aurreko edo prebentzioaren ildoaren bidez, Behatokiak eragin handiko eta sortzear edo egitear dauden espazio, jarduera, erakunde eta abarretan herritarren eskubideen urraketak ez gertatzeko bideak abiaraz ditzatela eskatzen zaie arduradunei.

Izan ere, errazagoa izan daiteke espazio edo jarduera bat abian jarri aurretik, beharrezko neurriak jartzea ondoren gerta litezkeen urraketak saihestearren.

Hona hemen 2001-2010an Behatokiak egin duen prebentzio lanaren zenbait adibide:

Espedientea	P2009-01	
Erakundeak:	BIOLUR, Biharko Lurraren Elkarteak, EKOLUR, Bionekazaritza eta Ekonekazaritza	
	Arrazoa:	<i>Sortzekotan diren markari dagozkionetan ere euskararen presentzia berma dadila.</i>
Espedientea	P2009-02	
Erakundeak:	ALDI SUPERMERTATUAK	
	Arrazoa:	<i>Aldi saltegiak Zokoan irekitzeko gogo duen saltegian hizkuntza-paisaian, bezeroekiko arreta- eta informazio-guneetako langileen zerbitzuei dagozkienetan eta komunikazio-euskarrietan euskararen presentzia bermatzeko eskaria.</i>
Espedientea	P2009-03	
Erakundeak:	LA POSTE	
	Arrazoa:	<i>2009ko maiatzaren amaierarako abian jarri behar duten helbideak egiaztatzeko sistema informatikoan euskarazko toponimoak ere identifikatuko dituela bermatzea.</i>
Espedientea	P2009-04	
Erakundeak:	ESPAINIAKO GOBERNUA: PLAN E	
	Arrazoa:	<i>Plan E delakoaren Tokiko Inbertsiorako Estatuko Funttsaren baitan egingo diren jarduketan informazioa emateko paneletan informazioa euskaraz agertuko dela bermatzea.</i>
Espedientea	P2009-05	
Erakundeak:	JEZ	
	Arrazoa:	<i>Abian jarriko dute Arberatzeko enpresan euskararen presentzia bermatzea.</i>

Espedientea	P2009-06	
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA	
	Arrazoa:	<i>Elizondoko Foruzaingoaren polizia-etxe berrian errotuluak, oharrak eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpen eta ohar idatziak euskaraz egon daitezela, herritarren eskura egonen diren inprimakiak eta herritarrei zehazki zuzendutako jakinarazpenak, bertzeak bertze, isunak, txostenak, zitazioak euskaraz idatziak egon daitezela, ibilgailuetako errotuluak euskaraz idatziak izan daitezela eta herritarrek foralengandik zerbitzua euskaraz jaso dhal izateko eskubidea bermatzea.</i>
Espedientea	P2009-07	
Erakundea:	NAFARROAKO GOBERNUA, REFENA	
	Arrazoa:	<i>2010ean zabalduko den REFENA gunean euskararen presentzia orekatua bermatzea</i>
Espedientea	P2009-08	
Erakundea:	TRANSPORTS CIUTAT COMTAL S.A.	
	Arrazoa:	<i>Enpresa Iruñerriko Hiri Garraio publikoaren zerbitzua eskaintzen hasten den egunetik beretik erabiltzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzea.</i>
Espedientea	P2009-09	
Erakundea:	LES ECRANS LUZIERS	
	Arrazoa:	<i>Zinemaren seinaletika, afitxetan, webgunean (sortuko balitz) eta komunikazio-euskarrietan euskararen presentzia bermatzeko</i>
Espedientea	P2009-10	
Erakundea:	AUTOROUTES DE SUD FRANCE	
	Arrazoa:	<i>ASF erakundeak autopistan obrak abiatu ditu A63 autobidea handitzeko gisan. Karia horretara ezarriko diren bide-seinaleak elebidunak izan daitezen bermatzea.</i>
Espedientea	P2010-04	
Erakundea:	Bilboko AYALA ANTZOKIA S.A.	
	Arrazoa:	<i>Ayala Antzokiak proposamen batzuk jaso ditu antzokiari beste erabilera bat eman eta eraikina gimnasio bihurtzeko. Hizkuntza paisaian, bezeroen arretan, zerbitzuaren publizitatean, nahiz idatzizko komunikazioetan euskararen presentzia bermatzeko eskaria egin zaio.</i>
Espedientea	P2010-05	
Erakundea:	OPEN KLUB GIMNASIOA	
	Arrazoa:	<i>OPEN KLUBek Durangon zabaltzera doan gimnasio berrian euskararen presentzia bermatzeko eskatzea, errotulazioan, megafonian, publizitatean, zerbitzuan zein hitzeko nahiz idatzizko komunikazioan</i>
Espedientea	P2010-06	
Erakundea:	AGOITZ, ERRONKARI ETA ZANGOZAKO UDALAK	
	Arrazoa:	<i>Nafarroako Gobernuaren Turismo Departamentuak "Ruta de la Pelota" produktu turistikoa promozionatzeko euskarrien artean errotulu batzuk jarriko ditu, besteak beste Agoitz, Erronkari eta Zangozan. Aipatu errotuluetan herrien euskarazko izendapena ere jasotzen dela ziurtatzeko eskatu zaie hiru udalei</i>
Espedientea	P2010-07	
Erakundea:	ARBIZUKO UDALA, TXISTORRAREN EGUNA	
	Arrazoa:	<i>Urriaren 10ean Txistorraren eguna ospatu zen Arbizun. Aurrez eginiko publizitatean, egunean bertan erabilitako seinaleztapenean, errotulazioan, megafonia bidezko oharretan eta gainerako euskarri guztietan direla ahozko nahiz idatzizkoetan, euskara lehentasunez erabiltzeko eskaera egin zaio Udalari eta azokan postua jartzeko baimena ematerakoan hizkuntza-irizpideak ezartzeko</i>



Datuak aztertze metodologia

- 3.1. Datuak irakurtzeko irizpideak
- 3.2. Sailkapena
- 3.3. Adierazleak

3.1. DATUAK IRAKURTZEKO IRIZPIDEAK

Datuen azterketa egin aurretik, horiek aztertzeko Behatokiak erabilitako irizpideak aurkeztu behar dira, hain zuzen ere, irakurketa eta ondorioak nola eta zergatik atera dituen ulertu ahal izateko.

Datuak bi eremu nagusitan eskainiko ditugu, hain zuzen ere, administrazio eta haren erakundeak eta administrazioetatik kanpoko gizarte-eragileak zein eremu sozioekonomikoa. Azterketa horretatik at geratu da udalen eremua. Izan ere, zaila da udal kopurua kontuan harturik, horien banaketa egitea, edota eremu administratibo horiei buruzko kexak kokatzea.

Administrazioetatik kanpoko gizarte-eragile zein eremu sozioekonomikoarekin jasotako datuak, eremuka, eta eremu horien barruan, sektoreka, sailkatu eta landu dira.

Bestalde, urterik urte, datuak irakurtzeko irizpideetan jaso izan den oinarri nagusia islatu egin da orain ere, alegia, datuen azterketa kualitatiboa.

2001-2010 bitartean 9.514 espediente kudeatu ditu Behatokiak, horien artean 9.417 herritarrek helaraziak. Horietatik 8.535k kexa izaera izan dute. Hortaz, bizipen edo eskubide-urraketa horietan oinarritutako diagnostika da ondoren aurkeztuko duguna.

3.2. SAILKAPENA

Herritarrek helarazitako kexak, beraz, bi eremu nagusitan sailkatu ditu Behatokiak; batetik, administrazio eta haren erakunde ofizialak eta, bestetik, administrazioetatik kanpoko gizarte-eragileak eta eremu sozioekonomikoa.

Hona hemen eremu bakoitzean egindako banaketa:

ADMINISTRAZIOA ETA HAREN ERAKUNDE OFIZIALAK	ADMINISTRAZIOETATIK KANPOKO GIZARTE-ERAGILEAK ETA EREMU SOZIOEKONOMIKOA
Justizia Lana eta Gizartea Ogasuna eta Ekonomia Barne saila Hezkuntza Herri Lana eta Garraioa Osasungintza	Interes orokorreko zerbitzuak Merkataritza-guneak, kateak, denda handiak Aisialdia Aseguruak eta Finantzak Mundu asoziatiboa Elikadura eta ostalaritza Profesionalak, zerbitzuak eta merkataritza txikia
UDALAK IPARRALDEA	

Horrekin batera, administrazioetatik kanpoko gizarte eragileen eta eremu sozioekonomikoaren barruan sektore edo esparruak zehaztu dira:

ADMINISTRATIOETATIK KANPOKO GIZARTE ERAGILE ETA EREMU SOZIOEKONOMIKOAREN SEKTOREAK ETA ESPARRUAK	
Interes orokorreko zerbitzuak	Komunikazio enpresak Energia hornitzaileak Osasungintza Hezkuntza Garraioak eta garraio enpresak
Merkataritza-gune handiak, kateak	<i>Ez dago esparrurik</i>
Aisialdia	Aisialdia Kirola Kultura Argitalpenak Hedabideak
Aseguruak eta finantzak	Aseguru-etxeak Finantzak
Mugimendu asoziatiboa	Mundu asoziatiboa Mugimendu soziopolitikoak Erljioa
Elikadura eta ostalaritza	Elikadura Ostalaritza
Profesionalak, zerbitzuak eta merkataritza txikia	Profesionalak eta zerbitzuak Merkataritza txikia

Halere, hurrengo atalean aurkezten ditugun ondorioak eta informazioa ez dira eremu publikoan zein administrazioetatik kanpokoan egin dugun azpisektoreka edo esparruka aurkeztuko. Bi esparru nagusi horietan oinarriturik aurkeztuko ditugu.

3.3. ADIERAZLEAK

Lehen atalean esan bezala, Behatokiak lehenetsi egiten du kexen irakurketa kualitatiboa, eta horretarako 2001 urtez geroztik azterketa horretarako adierazleak definitu zituen:

AZTERKETA KUALITATIBORAKO ADIERAZLEAK


Izaera

Hizkuntza-eskubidearen urraketa gertatu den erabakitzea. Ondoren, egungo ordenamendu juridikoaren arabera lege urraketarik gertatu den erabakitzea.

Puntualtasuna /
Sistematikotasuna

Errepikakortasuna

Gertaera baten inguruko kexa asko jaso badira.




Erabilera

Erabilera idatzi eta ahozkoaren bermea: ahozko zerbitzu pertsonala edo herritarrei zuzenean esaten zaizkienak; eskutitz pertsonalizatua edota errotulazioa etab.

Larritasuna

Eskubidea baliatzeagatik kalterik izan bada, edo beste eskubideren bat urratu bada.



Administrazioa eta haren erakunde ofizialak

4. Sarrera

- 4.1. Euskal Autonomia Erkidegoa**
- 4.2. Nafarroako Foru Erkidegoa**
- 4.3. Frantziako Estatuko Administrazioa**
- 4.4. Espainia Estatuko Administrazioa**

4. SARRERA

10 urte pasa dira Euskal Herriko herritarren eskubideak babestu eta defendatzeko xedearekin Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortu zenetik.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak (Bartzelona 1996) proposatzen duen hizkuntza-eskubideen adiera abiapuntutzat hartuta burutu du bere lana Behatokiak 10 urte hauetan. Hizkuntza-eskubideen definizioan, giza berdintasunezko irizpideetan eta hizkuntza-komunitatean arteko ekitatearen printzipio garrantzitsuetan, oinarritu du euskaldunon-hizkuntza-eskubideen defentsarako eginahala.

Hizkuntza-eskubidearen oinarritzko kontzeptua definituz hartu eta gizarte alor guztietan, publikoan zein pribatuan, bertako hizkuntza erabili eta garatzeko berezko eskubide gisa babestu eta defendatu du Behatokiak.

Bere jarduna abiatu zuenetik 9.500dik gora kasu bideratu ditu, eta beraz, uste dugu, esku artean ditugun datuak oso baliagarriak direla hizkuntza-eskubideen inguruko balorazioak egiteko. Behatokiak informazio iturri ez-ohikoan oinarrituz atera ditu ondorio horiek, herritarren bizipenetan hain zuzen ere.

Horretarako, Behatokiak *Euskararen Telefonoa* izeneko zerbitzua jarri zuen herritarren eskura, gertatu zaizkien eskubide urraketen berri helarazteko tresna. Gure ustez, txosten honetan aurkezten ditugun datuek euskal hiztunen benetako egoerara, eta egunorokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituzte.

Kudeatutako espediente horiek guztiak ez dira salbuespenak. Aitzitik, errealitatearen zati bat besterik ez dira. 10 urte hauetan bideratutako kexa guztiek eta erabiltzen diren adierazleek, halaxe erakusten dute.

Hartara, Behatokiak ondorengo lerrotan hizkuntza-eskubideen inguruko argazkia eskaini nahi du. 10 urtetan landutako datu guztiak utzi dituzten ondorioak biltzen ditugu. Datuak aurkeztu, aztertu, eta haien gaineko gogoeta egin dugu, hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko egoera aurkeztuz eremu administratiboan arabera.

4.1. IPAR EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOA

Ipar Euskal Herriari doakionez, Behatokiak, normaltasunez 2007tik aitzina lan egin du, hau da, Baionan bulegoa ireki ondoren. Ordura arte, euskalgintzak helarazitako kexen jarraipena egiten zuen. Begi bistakoa da, Behatokia, Ipar Euskal Herrian egituratzen joan ahala, kexen kopurua emendatu egin dela, topera iristeko 2010ean.

Azvimarratu behar da kexa gehienak Lapurdiko herritarrek egin dituztela. Hala ere, lehen aldikoz, 2010ean Xiberoko eta Behe Nafarroako egiturei dagozkien kexak bideratu ditu Behatokiak.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Xiberoan kudeatutako eskubide-urraketek eta horiei erantzuteko jaso ditugun erantzunek, aski garbi erakutsi dute euskarak ikusezintasunean jarraitzen duela Frantziak Estatuko administrazioentzat eta ez dute inolako urratsik eman.

2008ko uztailean onartu zuen frantses legebiltzarrak Konstituzio aldaketan 75-1 aipua eranstea, zeinek “eskualdeko hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte” egiten dituen. Haatik, bere garaian, Behatokiak artikulua eraginkortasun eza salatu zuen, eskubide berririk sortzen ez zuelakoan, eta euskarari estatus egokirik eskaintzen ez ziolako. Azken bi urte horietan, Behatokiak, berretsi du Konstituzioaren 75. artikuluan egindako aldaketak ez duela eragin positiborik izan eskubideen urraketetan.

Aipatu behar dugu ere Frantziako estatuak nazioarteko zenbait hitzarmen sinatu edo berretsi ez dituela, edo gutxiengorik gabeko Estatu gisa aurkeztu duela bere burua eta, hortaz, konpromiso horiek ez bereganatzeko arrazoiak aurkeztu dituela.

Gogoratu behar dugu Frantziako estatuan, herritarren arteko berdintasuna bermatzearren, frantsesa da Errepublikako hizkuntza bakarra. Hala ere, beste hizkuntzak ez onartzeak zuzenean jotzen du herritarren arteko berdintasunaren aurka. Horrela, Behatokiak jaso dituen kexetan hizkuntza-eskubide urraketa larriak gertatu badira ere, lege urraketarik ez da izan, legearen arabera ez baitago frantsesa ez beste hizkuntzarik.

Datuak erakusten dutenez, Frantziako estatuan Administrazioarekin edo haren erakunde autonomoekin zerikusia izan duten kexek, oro har, zerbitzuak euskaraz jasotzerik ez izatearekin dute zerikusia (Justizia prozedurak, SNFC, TRÈSOR PUBLIC, LA POSTE) edo hizkuntza paisaia euskararen arrastorik ez agertzearekin.

Administrazio orokorra

Frantziako jurisprudentzian euskararen aipamenik ez dagoenez,, herritarrei zuzenean urratzen zaie hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea. Are gehiago, hizkuntza-eskubidea eskubide subjektibo publikoa den heinean, Justizia Administrazioak eskubide horien bi formak urratzen ditu, alegia, forma aktiboa (herritarrak berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea), bai eta forma pasiboan ere (herritarrak jakinarazpenak hautatutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea).

Frantziako estatu Administrazioan ez da euskara erabiltzerik prozedura juridiko zein penaletan. Halaber, euskaraz deklaratu nahi dutenei ez die itzultzailea onartzen.

Zenbakia: 1003/2002	Frantzia Estatu Administrazioa-Ministère de la Justice français	Lapurdi
Arrazoa:	Iparraldeko herritarrari ez zaio euskara erabiltzen uzten epaiketetan, ez eta itzultzailearekin ere.	

Herritarrek justiziaren aurrean tokiko hizkuntza ezin erabiltzea larria da, are gehiago, hizkuntza hori erabiltzea aldarrikatzeagatik bestelako ondorioak pairatu behar baditu: kalte ondorioak edota bortizkeria.

Zenbakia: 728/2003	Frantzia Estatu Administrazioa- Ministère français de la Justice	Lapurdi
Arrazoa:	2003ko apirilaren 3an 17 pertsona bertaratu ziren epaitegira. Lehendakariak frantsesez hitz egiteko agindu zien eta euskaraz egiteko eskubideari atxiki ziotenez, epaiketa hauen hitzik hartzerik gabe egin zen.	

Justiziaren arloan gertatzen diren hizkuntza-eskubideen urraketek beste giza eskubide batzuen urraketak eragiten dituzte, besteak beste, defentsarako eskubidea, babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Kontuan izan behar dugu nazioarteko estandarrek babes judizial eraginkorrerako eta defentsa eskubidea bermatzeko eskatzen dutela.

Zenbakia: 51/2004	Frantzia Estatu Administrazioa- Ministère français de la Justice	Lapurdi
Arrazoa:	2004ko urtarrilaren 8an epaiketa izan zuen Baionan eta ezin izan zuen euskaraz deklaratu. Bertan hizkuntz eskubideak aldarrikatzera joan zirenak ostikoka eta negar-gasen bidez atera zituzten.	

Frantziako estatuak agertzen duen jarrera herritarren oinarrizko eskubideen aurka doa. Alegia, herritar orori prozedura judicial batean gutxieneko eskubideak bermatu behar zaizkio, besteak beste, informazioa hizkuntza ulergarrian jasotzeko eskubidea edota auzitegian itzultzailea izateko eskubidea. Behatokiak jasotako informazioetatik ondorioztatu daitekeenez, herritarrei ukatu egiten zaie beren burua defendatzeko eskubidea berezko hizkuntza erabiltzea.

Kapritxotzat ere jo izan du prokuradore batek euskaraz mintzatzeko eskubidea baliatzea eta frantsesaren erabilera justifikatzeko François Lehena erregeak 1539an frantsesaren erabilera agindu zuela adierazi zuen.

Zenbakia: 687/2004	Frantzia Estatuko Administrazioa- Ministère français de la Justice	Lapurdi
Arrazoa:	Parisko epaitegian ez diete euskarazko interpretaririk jarri. Nahi izanez gero, ingelesez egin dezaketela adierazi diete.	
Zenbakia: 572/2005	Frantzia Estatuko Administrazioa- Ministère français de la Justice	Bizkaia
Arrazoa:	Parisko Cour D'Appel delakoan epaileen galderei euskaraz mintzatu izana, presoaren espetxealdia luzatzeko arrazoi bat gehiago bezala hartu du epaileak.	
Zenbakia: 575/2005	Frantzia Estatuko Administrazioa- Ministère français de la Justice	Lapurdi
Arrazoa:	Euskal Herriko hainbat herritarren aurkako epailetan hegoaldekoek euskaraz deklaratu ahal izan zuten. Iparraldekoek, aldiz, ez.	

Hori nahikoa ez balitz, Justizia Ministerioak zalantzarik ere ez dute izan euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bera auzitan jartzeko. Baionako Goi Instantziako Auzitegiko familia arazoetarako epaile batek ebazpena atera zuen gurasoen banaketaren ondorioz, haurrak zein ikastetxeetara joan behar zuten argitzeko. Haurra Miarritzeko ikastolan eskolaratua bazen ere, epailearen ebazpenaren arabera, haurra ikastolatik atera behar izan zuten murgiltze ereduak haurrak *akulturatu* edo *dekulturatu* dituelako.

Zenbakia: 206/2006	Frantzia Estatuko Administrazioa- Ministère français de la Justice	Lapurdi
Arrazoa:	Baionako Goi Instantziako Auzitegiko familia-arazoetarako epaile batek Ikastolen ereduak akulturatzaile eta dekulturatzailetat jo du.	

Jasotako kexek erakusten dutenez, oro har, Frantziako Erakunde Publikoetan nekez lortzen da, bai harrera eta bai erakunde publikoek plazaratu euskarriak, jakinarazpenak eta informazioak euskaraz jasotzea. Euskarak ez du inongo lekuri publikoarekiko harremanetan, ez eta hizkuntza paisaian ere.

Zenbakia: 1004/2002	Frantzia Estatuko Administrazioa- Société Nationale de Chemines de Fer -SNCF	Lapurdi
Arrazoa:	SNCF enpresa publikoaren txartel, publizitate, megafonia bidezko mezu... guztiak frantsesez besterik ez ditu egiten. Herritarrek bi hizkuntzak erabiltzeko gonbita egin arren, ezezko erantzuna eman du beti.	

Gauzak horrela, tokiko hizkuntzaren hiztunen eskubideak sustatu barik, atzerriko hiztunen eskubideak bermatzearen aldeko politika ere darabilte.

Zenbakia: 1083/2006	Frantzia Estatuko Administrazioa- SNCF. Société Nationale des Chemins de Fer	Lapurdi
Arrazoa:	Baionako tren-geltokia berritu dute eta euskara ez da inolako elementuan ageri: kartelak, makinak... Txartelak saltzeko makina bost hizkuntzetan erabil daiteke, baina ez euskaraz. Zuzendariaren arabera, euskaraz jartzea euskaraz jartzea ulergarritasuna eragozten du.	
Zenbakia: 996/2007	Frantzia Estatuko Administrazioa- SNCF. Société Nationale des Chemins de Fer	Lapurdi
Arrazoa:	Familia ugariaren karta eskaria egin zioten. Kari horretara txekea egin zuten eta euskaraz bete zuten. Uztailaren 5ean SNCFk gutunaren bidez ondorengoa erantzun zien: txekea ezin izan dutela kobratu txekearen hizkizko kopurua zuzena ez zelakoan, hots, euskaraz baitzen.	

Urtez urte kexa berdinak errepikatzen dira. Hizkuntza paisaian ere sistematikoki urratzen dira euskaldunon hizkuntza-eskubideak. Ondorioz, euskarak ez du inongo lekurik publikoekiko harremanetan.

La POSTE erakundeak ere urterik urte eutsi dio euskaldunon hizkuntza-eskubideen aurkako jarrerari. La Poste erakundeak euskaldunei eragiten dien bereizkeria Nazio Batuen Erakundera eraman zen 2002an.

Zenbakia: 603/2004	Frantzia Estatuko Administrazioa- La Poste	Lapurdi
Arrazoa:	La Poste erakundeak ez ditu onartzen euskarazko toponimoak agertzen dituzten eskutitzak. Frantsesez agertu ezean ez bidaltzeko mezua egin dio enpresa bati.	
Zenbakia: 124/2007	Frantzia Estatuko Administrazioa- La Poste	Lapurdi
Arrazoa:	Urtarrilean igorleari atzera itzuli zion gutuna, euskaraz eta zuzen idatzita zegoen Uztaritzeko helbidearen ondoan, hartzailea helbide horretan bizi ez zela zioen frantsesez idatzitako oharrekin.	
Zenbakia: 749/2008	Frantzia Estatuko Administrazioa- La Poste	Lapurdi

Arrazoa:	Irailaren 2an, goizean, Uztaritzeko bulegoan ezin izan zuen egokitu zitzaien langilearengandik zerbitzua euskaraz jaso. Zehazki ez ziola ulertzen eta 56 urterekin ez zuela ikasten hasteko gogorik esan zion.	
Zenbakia: 30/2010	Frantzia Estatuko Administrazioa- La Poste	Lapurdi
Arrazoa:	Urtarrilaren 13an frantses hutsean jaso du etxe aldaketaren ondorioz, gutunak helbide berrira igortzeko kontratuaren datuak aipagai dituen karta. Horrez gain, bezeroak helbide berria euskaraz helarazi zien arren, LA POSTEK frantseseratu nahi izan du, baina hutsak egin ditu.	

Frantses Aurrekontu Publikoen eta Funtzio Publikoaren Ministerioa (Ministère du Budget, des Comptes et de la Fonction Publique) URSAFF eta Kontseilu Orokorrari bideratutako kexek ere urterik urte errepikatzen dira eta, azken urteotako bilakaera kontuan izanik, atzerapausoak ere gertatu dira. Kexen zioak antzekoak izaten dira urterik urte: herritarrei helarazi informazioa, gidak, inprimakiak, e-posta bidezko mezu eta jakinarazpenak frantses hutsean. Harrera, seinaletika, webguneak, gutunak, inkestak, liburuxkak, informazio-orriak, kartelak eta panelak, egiaztagiriak...

Zenbakia: 1084/2006	Frantzia Estatuko Administrazioa- CHAMBRES DE COMMERCE ET D'INDUSTRIE	Lapurdi
Arrazoa:	Herritarrak ezin izan du Ganbarako harreraren zeuden bi langilerengandik zerbitzua euskaraz jaso. Horrez gain, herritarraren aburuz, jarrera baztertzaila izan dute berarekiko	
Zenbakia: 857/2007	Frantzia Estatuko Administrazioa- CONSEIL RÉGIONAL D'AQUITAINE	Lapurdi
Arrazoa:	Akitania Eskualdeko Kontseiluak banatu aldizkaria jaso du eta frantses hutsean da.	
Zenbakia: 727/2008	Frantzia Estatuko Administrazioa- CHAMBRE DE COMMERCE ET D'INDUSTRIE	Lapurdi
Arrazoa:	Baionan duen egoitzako seinaletikari eta informazio guzietan ez da euskararen arrastorik. Hala, seinaletikari dagokionez, komunak, informazio bulegoa...informazioari doakionez, konferentzia nahiz ikastaroei buruzkoak, izena emateko orriak eta bestelako esku-orriak frantses hustean dira.	
Zenbakia: 487/2008	Frantzia Estatuko Administrazioa- MINISTERE DE L'ECONOMIE, DE L'INDUSTRIE ET DE L'EMPLOI- ANPE	Lapurdi
Arrazoa:	Maiatzaren 28an, 11:30tan, Miarritzeko agentziara joan zen. Bertan ezin izan zuen harrerako langilearengandik, ez eta teknikariarengandik ere, zerbitzua euskaraz jaso	

Herritarrek ahozkoan euskara erabiltzeagatik jasotako erantzunak ere aipatu nahi ditugu. Izan ere, euskarazko harrera eskatzeagatik “hemen Frantzian gaude” edota telefona esekitzea bezalako jarrerak pairatu behar izaten dituzte behin baino gehiagotan.

Hezkuntza

Hezkuntza arloan ere Frantziako estatuak nazioartean adostutako hainbat hitzarmeni muzin egiten die, hizkuntza komunitateen eskubidea bermatzeko inolako neurririk aplikatzen ez duelako eta politika are murriztagoak jartzen dituelako abian. Ministerioek baliabideak murrizteko, eta frantsesa beste hizkuntzarik ez balitz bezala jokatzeko politikak ez du batere laguntzen hizkuntzaren biziraupenerako eskubidea bermatzen.

Ikastoletan ez ezik, sare publikoan ere hainbat arazo izan dira: baliabide eskasia, euskaraz matrikulatutako haurrei zerbitzua emateko irakasleak kontratatze arazoak...

Zenbakia: 802/2005	Frantzia Estatuko Administrazioa -Ministère de L'Education	Lapurdi
Arrazoa:	Baionako Louis de Foix ikastetxeko BTSeko ikasle batzuek euskara urte bukaerako azterketa euskaraz egiteko eskaera egin zuten. Ikuskaritza akademikotik jaso duten erantzunean adierazi zaie BTS batzuetan euskara aurkez daitekeela baina haiek eskatzen duten gaian ez dela posible.	

Eskola ibilbide guztia euskaraz egin duten ikasleek unibertsitaterako sarbidea ahalbidetzen duen *Baxoa* izeneko proba frantsesegaz egitera behartuak daude. Honek, berdintasun printzipioaren urraketa dakar, sistemak desabantailan jartzen baititu euskaraz ikasten duten ikasleak. Nola ulertu behar da, ikasketak euskaraz eginik ikasketa horien emaitzak neurtzeko probak ikas-hizkuntzan ezin izatea?

Lapurdi, Nafarroa eta Xiberoako ikasleei ez zaie bermatzen unibertsitatean ikasketak euskaraz egiteko eskubidea.

Herriko Etxeak eta Toki Administrazioa

Azkenik, herri administrazioei doakionez, webguneak, harrera seinalea, oharrak, publizitatea, herri aldizkaria, komunikazio euskarriak, aldizkariak, liburuxkak, informazioak, seinaleak... frantses hutsean egiteagatik edota euskararen presentzia hutsaren hurrengo izateagatik.

Zenbakia: 31/2007	Frantzia Estatuko Administrazioa - Baionako Herriko Etxea	Lapurdi
Arrazoa:	Inauterietarako kartel-lehiaketa jarri du abian. Kartelean testua frantsesegaz agertu behar da derrigorrez, ez, ordea, euskaraz.	
Zenbakia: 774/2007	Frantzia Estatuko Administrazioa - Donibane Lohizuneko Herriko Etxea	Lapurdi
Arrazoa:	Aparkaleku sarreretan dagoen "Prenez votre ticket en entrant" izeneko kartela 4 hizkuntzatan idatzia dagoen arren, euskaraz ez dago.	

Zenbakia: 413/2008	Frantzia Estatuko Administrazioa - Donibane Lohizuneko Herriko Etxea	Lapurdi
Arrazoa:	Herritarrari senide baten heriotza-agiria frantses hutsean luzatu diote.	

Berretsi egiten dugu, beraz, korpus juridiko ezak edo, hobe esanda, gure hizkuntza-eskubideen aitortzaren kontra eratuta dagoen korpus juridikoak ahalbidetu dituela Behatokiak jasi dituen kexa guzti-guztiak. Legezko aitortza ezak eragin handia du herritarrek eskubideen urraketen inguruan duten pertzepzioan. Zaila egiten zaie herritarrei eskubidea urratu zaiela salatzea, legeak haien eskubideak aitortzen ez baditu, ikusgabeak egiten baititu, urraketa egoerak naturalizatu eta betikotu egiten ditu. Joera hori nahiko normal izaten da, izan ere, herritarrak bere eskubideen bermean errespetu handiago eskatzen die administrazio publikoei.

Halere Behatokiak izebergaren tontorra besterik ez du jarri agerian; eguneroko bizitzako edozein funtzio administratibo edo sozial euskaraz egiteko ezintasunak milaka bailirateke.

Hartara, Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Xiberoan kudeatutako eskubide-urraketek eta horiei erantzuteko jaso ditugun erantzunak, aski garbi erakutsi dute euskarak ikusezintasunean jarraitzen duela Frantziako Estatuko administrazioentzat eta ez dutela inolako urratsik eman.

4.2. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA

Nafarroako Foru Erkidegoan gertatzen dena ez da beste inon gertatzen bertako hizkuntza gutxitu baten babesari dagokiolarik: berezko hizkuntza dela aitortu arren, hizkuntzaren ofizialtasuna geografikoko banatuta dago, inon ez bezala; autonomia-erkidego berean biztanleei eskubide desberdinak aitortzen dizkie legeak herritarren arteko bereizkeria bultzatuz.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoan Nafarroako Foru Hobekuntza Legean du lehen erreferentzia. Bertan hizkuntzen estatusari buruz ezartzen den lehen neurriak Nafarroako hizkuntza ofizial gaztelania dela ezarri zuen 9. artikuluan. Jarraian euskara ere ofiziala izango zela gehitu zen, baina soilik “eremu euskaldunean”. Lege honetan bertan ezarri zen nafarren arteko bereizkeria ahalbideratzeko lehen urratsa.

LORAFNAK azaltzen zuen ofizialtasun partzialaren garapena Euskararen Legeak ezarri zuen 1986an.

Legeak ezarritako **eremu euskaldunean** herritarrei hizkuntza-eskubideak era aktiboan eta pasiboan aitortu zitzaizkien. Hau da, administraziora euskaraz zuzentzeko eskubidea, bai eta administraziotik erantzuna euskaraz jasotzekoa ere. Legeak ezarritako **eremu mistoan** herritarren hizkuntza-eskubideak era aktiboan aitortu zitzaizkien; ez, ordea, pasiboan. Hartara, Administrazioak herritarrekin dituen harremanetan ez dago aitortuta hizkuntza-eskubidea, eta ondorioz, ez eta horren bermea ere. Legeak ezarritako **eremu ez-euskaldunean** herritarrei eskubideak aitortu ez, baina aukera ematen zaie euskaraz zuzentzeko. Aukera eta ez eskubidea, izan ere, euskaraz zuzenduz gero, itzulpena eska dakiekeelako.

Horrela, Nafarroako herri batzuetan euskararen koofizialtasuna ezarri zen eta Nafarroako eremurik handienean ez zitzaion status hori aitortu hizkuntzari. LORAFNAK, beraz, Nafarroako euskaldunen arteko bereizkeria ekarriko zuen hizkuntza politikaren lehen mugarrria ezarri zuen. Ondorioz, haren garapena izango den corpus juridiko osora hedatuko du bereizkeria.

Horrela, 2000 urtean Gobernuak euskalgintzak zein gizarteak horrenbeste arbuiatu zuten Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko Dekretu arras murriztaile bat onetsi zuen, 372/2000 Dekretua hain zuzen ere. Akats formalak medio bertan behera geratu zen ordea, eta aurreko horren kлона zen 29/2003 Dekretua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Besteak beste, jarraian transkribatzen diren artikuluek jasotzen ditu Dekretuak:

13. Artikulua.

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen zerbitzuek erabiltzen dituzten barne inprimaketan eta paperetan idazpuruak eta menbreteak gaztelaniaz idatziko dira.

16. Artikulua.

1- Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotiluak, paperen idazpuru eta menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira.

2. Xedapenak, oharra, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen da.

Horrelako artikuluek ikusirik, euskararen erabilera arautzeko Foru Dekretua baino, euskararen erabilera debekatzeko Foru Dekretua dela ondoriozta genezake.

Dekretua Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabili ahal izateko oztopo bilakatu zenez, hainbat udal, sindikatu eta euskalgintzako eragileek Dekretuaren aurkako helegitea aurkeztu zuten Nafarroako Justizia Auzitegian. Auzitegiak arrazoi eman zien helegitea tartekatu zuten eragileei eta Dekretuaren 4 artikulua baliogabetu zituen 18/1986 Foru Legearen aurkakoak zirela iritzita. Nafarroako Gobernuak kasazio helegitea aurkeztu zuen epaiaren aurka.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetutako artikuluen aurkako helegitea ebatzen zuen Auzitegi Gorenaren epaia irmoa 2009ko maiatzean iritsi zen. Gaur egun artikulua horiek guztiz baliogabetuta badaude ere, Administrazioak ez du bere jarduna zuzendu. Dekretuaren irakurketarik murrizten aplikatzen jarraitzen du.

Idatzizko informazioa zein jakinarazpenen eremuan aipatzekoa da azken urteetan izandako inboluzioa. Eremu mistoko zein ez-euskalduneko herritarrei helarazten zaizkien jakinarazpen oro gaztelania hutsean egoten da.

Zenbakia: 218/2002	Nafarroako Gobernua. Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan ele bietako ziurtagiri bat eskatu arren, gaztelania hutsean luzatu zioten.	
Zenbakia: 332/2004	Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentutik gaztelania hutsean bidali diote jakinarazpena eremu euskalduneko herritarrari.	
Zenbakia: 826/200	Nafarroako Gobernua. Inguru., Lurralde Antolamendu eta Etxeb. Dp	Nafarroa
Arrazoa:	VINSak gaztelania hutsean bidali dio herritarrari babes ofizialeko etxebizitza/eskaeraren inguruko jakinarazpena.	
Zenbakia: 698/2006	Nafarroako Gobernua. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Depart.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusitik gaztelania hutsean bidali dizkiote gastuen itzulketarako bete beharreko inprimakia eta harekin batera doan jakinarazpena.	
Zenbakia: 263/2010	Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Gaztelania hutsean igorri dio jakinarazpena Iruñeko herritarrari urtarrean kontratua bukatzen zaiola gogoraraziz. Gutun-azala ere gaztelania hutsean idatzia dago.	
Zenbakia: 802/2010	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua.	Nafarroa
	Nafarroako Gobernuak KULTURA ETA TURISMP DEPARTAMENTUAK argitaratutako "Acercate a Navarra/el Reyno de las cuatro estaciones VERANO 2010" aldizkaria gaztelania hutsean topatu dut legeak ezarritako eremu euskalduneko udalerriko turismo bulegoan. Ez dut aurkitu euskarazko bertsiorik.	

Baina legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrei ere ez die hizkuntza eskubidearen alde pasiboa bermatzen. Eta azken urteetako bilakaeran eremu horretan kokatutako herriei, erakundeei, zein instituzioei bidaltzen zaien dokumentazio oro, gaztelania hutsean dago.

Zenbakia:101/2009	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Legeak ezarritako eremu euskalduneko D ereduko ikastetxe batean gaztelania hutsean jaso dute BIRDING NAVARRAK igorritako <i>Observar aves en Navarra</i> izeneko biorrikoa. Ikastetxeak biorrikoa euskaraz igortzeko eskatu dute. Ondorengo erantzun diete Birding Navarratik: ez dutela esku-orria euskaraz argitaratu; gaztelaniaz eta ingelesez baino ez daudela, printzipioz (Nafarroa) kanpoko jendearentzat prestatuta dagoelako.	

Horrela, legeak ezarritako eremu euskalduneko toki administrazioekin ere antzeko jarrera izaten du. Nafarroako Gobernuak 2003an gaztelania hutsean igortzen zion dokumentazio guztia udal bati. Euskaraz igortzeko eskaturik, Gobernuak indarrean jarritako lege murriztaileen babesa aipatu zuen, eta, beraz, gaztelania hutsean bidaltzen jarraitzen du.

Zenbakia: 84/2003	Nafarroako Gobernua. Toki Administrazioaren Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioaren Departamentutik 18-1986 Euskararen Foru Legeak zedarritutako eremu euskaldunear dagoen udal bati igortzen dion dokumentazioa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 674/2010	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua	
Arrazoa:	Legeak ezarritako eremu euskalduneko udalerrira, KULTURA ETATURISMO DEPARTAMENTUAK argitaratutako "Mapa turistico de carreteras" izeneko liburuxka bidali da eta euskaraz ez dakar ezer.	

Herritarren eskura jarritako hainbat inprimakitan, formulariotan eta inkestetan ere Nafarroako Gobernuak ez dio erreparatu legeak ezarritako ofizialtasun murrizari ere. Horrela, Estatistika Institutuak bidalitako inkestak, laguntzak eskatzeko inprimakiak...gaztelania hutsean besterik ez ditu argitaratu, horien hartzailea zein eremutakoa den kontuan hartu gabe.

Zenbakia: 329/2003	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Hezkuntza eta Kultura Departamentu zeneko Legezko Gordailua sailean eskabideak egiteko inprimakia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 180/2003	Nafarroako Gobernua. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hiru urte behetiko haurrak dituzten amentzako diru-laguntzak eskatzeko inprimakiak eta bete beharreko baldintzen zein aurkeztu beharreko dokumentazioaren informazioa ematen duten orriak gaztelania hutsean baizik ez daude.	
Zenbakia: 270/2008	Nafarroako Gobernua. Ekonomia eta Ogasun Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	2007ko ekitaldiari dagokion errenta-aitorpena eginda bidali dio herritarrari. Agiria gaztelania hutsean dago.	

Horrekin batera Nafarroa osoan zabaldu beharreko liburuxkak edota esku-orriak gaztelania hutsean argitaratzen jarraitzen du: PADI programa, legionellari buruzko esku-orria, osasun liburuxkak, tratu txarrei buruzko informazio-orriak eta abar luze bat.

Zenbakia: 327/2003	Nafarroako Gobernua. Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departam.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak "Estrategia territorial Navarra. Poniendo en valor el territorio: Diseñamos la Navarra de 2025" liburuxka osoa, izenburua izan ezik, gaztelania hutsean argitaratu du.	
Zenbakia: 824/2006	Nafarroako Gobernua. Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departam.	Nafarroa
Arrazoa:	VINSAK gaztelania hutsean bidali dizkio herritarrari babes ofizialeko etxebizitzaren 2006ko kanpainaren inguruko azalpenak ematen dituen gutuna, informazio/liburuxka eta eskaera bideratzeko inprimakiak.	
Zenbakia: 599/2007	Nafarroako Gobernua. Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departam.	Nafarroa
Arrazoa:	Ingurumen Departamentuan arrantzarako arauen liburuxka eman diote eremu euskalduna deritzaneko herritarrari. Liburuxka gaztelania hutsean dagoenez, euskarazko alea eskatu du, baina gaztelaniaz soilik argitaratu dutela erantzun diote	

Zenbakia: 866/2007	Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.	Nafarroa
Arrazoa:	Iruñeko Hizkuntza Eskolan matrikula egiterakoan <i>Guía para aprender idiomas más fácil y mejor</i> izeneko liburuxka eman diote. Euskarazko alerik ez duten galdetuta, ezetz erantzun diote. Sarrera baino ezin da irakurri euskaraz.	
Zenbakia:963/2008	Nafarroako Gobernua. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Barañaingo herritarrek gaztelania hutsean jaso dute Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak Departamentuak igorritako Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko esku-orria. Gutun azalean, Departamentuaren logoa eta helbidea ere gaztelania hutsean ageri dira.	

Antzeko egoera gertatzen da Administrazioaren web gune ofizialetan: Gobernuaren web gune nagusiak, Kirol Institutuaren web guneak, bai eta Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendaritzarenak ere, gaztelaniazko bertsioak besterik ez dituzte.

Zenbakia: 4/2002	Nafarroako Gobernua. Toki Administrazioaren Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioei bereziki zerbitzua emateko internet sarean jarri duen www.cfnavarra.es/info-local webgunean eskura dauden inprimaki guztiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 686/2002	Nafarroako Gobernua. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuaren webgune ofiziala, www.cfnavarra.es , gaztelania hutsean dago. Beraz, aipatu informazio ofiziala ez zaio legeak ezarritakoari lotzen.	
Zenbakia: 857/2008	Nafarroako Gobernua. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Adineko Pertsonen Tutoretzarako Nafarroako Fundazioaren webgunea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 876/2009	Nafarroako Gobernua. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gazteriaren Institutuaren www.dimejoven.net webgunea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 273/2003	Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2003an antolatu dituen udako ikastaro guztien artean ez dago bat bera ere euskaraz egin daitekeenik http://www.unavarra.es/info/cursoverano.htm , bestalde, NUPen webgunean, ikastaroen gaineko informazioa, bai eta izena emateko orriak ere, gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 115/2009	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	BIRDING NAVARRAREN webguneak, www.birding.navarra.es , ez du euskarazko bertsiorik. Gaztelaniazkoa eta ingelesezkoa, ordea, bai.	

Biziki aipagarria da Nafarroako Gobernuak euskarazko toponimo ofizialak hizkuntza paisiatik desagertzeko aurrera eraman duen politika bortitza.

Zenbakia: 21/2002	Nafarroako Gobernua. Herri lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Iruñeko zenbait sarreretan (Landaben industria barrutitik Sanduzelai auzora doan horretan, adibidez) bide seinaletan "San Sebastián" jarri dute, toponimo horrek dituen bi izendapen ofizialetatik soilik gaztelaniazkoa erabiliz.	
Zenbakia: 891/2002	Nafarroako Gobernua. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Oroz-Betelu herriaren sarreran jarritako bide-seinalean toponimoaren euskarazko bertsioa ez da agertzen.	

Zenbakia: 641/2005	Nafarroako Gobernua. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Auzitegiak Orkoien toponimoaren aldeko epaia eman arren, Nafarroako Gobernuak Orcoyen erabiltzen jarraitzen du NAOn.	
Zenbakia: 843/2006	Nafarroako Gobernua. Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departam.	Nafarroa
Arrazoa:	Kontseilariak Baztán toponimo ez ofiziala erabili du administrazioetara bidaltzen duen jakinarazpenetan.	
Zenbakia: 808/2008	Nafarroako Gobernua. Kultura eta Turismo Departamentua	
Arrazoa:	Bide-seinaleak jarri ditu Arraiozen, errepide ertzean, Jauregizarrea non den adierazteko. Seinale horietan bi izen ageri dira: Jauregizar eta Jauregizaharra. Ez bata, ez bestea, ez dira toponimo ofizialak.	
Zenbakia: 1057/2006	Iruñerriko Mankomunitatea	Nafarroa
Arrazoa:	Iruñerriko hiri/garraio publikoko 2. zenbakidun autobusetan Cortes de Navarra toponimoa gaztelania hutsean ageri da.	

2007an euskalgintzako eragileek itxaropenez baina errezeloz hartu zuten Euskarabidearen sorrera. Euskarabidearen xede nagusi bezala, herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta eskubide hori eraginkor egiteko tresnak definitzea, eta euskararen berreskurapena eta garapena babestea definitu baziren ere, luze gabe geratu zen agerian, zeregin horietatik urrun, Gobernuaren irudia garbitzeko sortutako egitura bat zela.

Izan ere, Euskarabidea, aurrekontuetako diru-partidarik gabe sortu zen eta ordura arte euskarazko egitasmoak gauzatzera zuzendutako diruetatik finantzatu baita sorreratik. Euskarabideak berak bakarrik, euskalgintzara bideratutako sosen 2/3 xahutzen ditu bere funtzionamenduan. Euskararen sustapenerako diru-laguntzak jasotzen zuten egitasmo asko kinka larrian jarritz. Hori horrela, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen zuten euskararen sustapenerako egitasmo gehienak, izugarritzko murrizketak jaso dituzte azken urteetan. Egun indarrean dagoen marko juridikoari eta gobernuaren hizkuntza-politikari babesa eman besterik ez du egin.

Nafarroako Gobernuak Administrazio publikoko lanpostuetan euskararen balioespena arautzeko 55/2009 Foru Dekretua atera zuen. Dekretu horrek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera eguneratzen du, epaitegiek 29/2003 Foru Dekretuaren 21. eta 23. artikulua baliogabetu ostean.

Dekretu berri honen arabera, eremu euskalduneko herrietan aritzeko diren lanpostuetan sartzeko, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatu gisa hartzeak, merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitu zaion puntuazio osoarekiko %6 balorazioa izanen du, eta %3koa eremu mistoan, beti ere plantilla organikoan euskara jakitea nahitaezkozat jo ez bada.

Gainera, zenbait lanpostuk herritarrekin duten harreman mailaren arabera, eremu euskalduneko lanpostuak betetzeko euskararen balorazioa merezimenduen gainerakoari esleitu zaion puntuazio osoarekiko %10 arte areagotu ahalko da, eta eremu mistoan %6 arte.

Bada, Nafarroako Gobernuak lanpostuak hornitzeko deialdietan euskara merezimendu gisa baloratzeari uko egiten jarraitzen du. Oposizio-lehiaketa izaerako deialdiak egin beharrean oposizio hutsak deitzen ditu euskararen ezagutza ez baloratu behar izateko. Eta euskararen ezagutza baloratzen ez den bitartean, ingelesaren ezagutza puntuatzen da. Bestalde, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko langileak kontuan hartu gabe, langileriaren %1 inguruk du euskararen derrigorrezko ezagutza.

Nafarroako Arartekoak berak (herritarren eskubideak defendatzen dituen Nafarroako Parlamentuko erakundea), Nafarroako Parlamentuak eskatuta, 2010ean euskarari buruz egin zuen txosten berezitan, ofizialtasuna herrialde osora zabaltzeko gomendioa egin die Nafarroako agintariei, eta hainbat neurri proposatu dizkie garatzen ari diren hizkuntza-politika egungo errealitate soziolinguistikora egokitu dezaten. Hau da, Arartekoak berez murrizta den legearen irakurketa positiboa egiteko eskatu izan die administrazioei. Baina Nafarroako agintariek ez dituzte begi onez hartu Arartekoak egindako iradokizunak.

Egun indarrean dagoen lege murriztaren irakurketa are murriztago egin, hizkuntza-eskubidea ez ezik legea ere urratu eta euskara hizkuntza eremu publikotik desagerraraztea izan dira Nafarroako Gobernuak urte hauetan guztietan egindako bidearen ondorioak.

4.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren azterketa egiteko, lehenik eta behin gogoratu behar dugu Autonomia Erkidego osoan dela euskara berezko hizkuntza eta *status* ofiziala esleitu zitzaiola hiru lurraldeetan.

Horren ondorioz, euskaldunoi hainbat eskubide aitortzen zaizkigu, besteak beste, administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eta euskaraz artatuak izateko eskubideak.

Halere, Euskal Autonomia Erkidegoan legeak hizkuntza-eskubideak aitortu arren, horien bermerako mekanismo juridiko-administratibo eraginkorrik ez da abian jarri.

Horrela, 10 urte hauetako jardunean, Behatokiak agerian utzi behar izan du ofizialtasunak eragiten dituen ondorio juridikoak betetzetik urrun daudela erakundeak eta, eskubideen babeserako legeria betearazteko derrigortasunik ez egoteak, hizkuntza-eskubideen urraketak betikotu egiten dituela.

Behatokiak urterik urte argitara ematen dituen txostenetan agertu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara erabiltzeko duten eskubidea gehien urratu duten sailak ondoko hiru hauek dira:

Osasun Arloa:

Egun indarrean dauden Dekretuak eta planak OSAKIDETZAn herritarren eskubideak babesteko eta bermatzeko tresna eraginkorrak ez direla berretsi dute Behatokian jasotako kexek. OSAKIDETZAK oso berandu eutsi zion erakundearen euskalduntze-prozesuari, eta ondorioz, abian jarri beharreko planak ausartagoak izan behar dira. Egiturazko aldaketa egin behar da OSAKIDETZAn euskaldunon eskubideei erreparatzeko.

Oso agerian geratu da progresibitatearen *tempus* malguak ondorio zuzenak dituela eskubideen urraketan. Osasun sailera urterik urte bideratutako ehunka kexaren edota eskubide-urraketaren aurrean ez dute neurri zehatzik aipatzen horiek konponduko direla bermatzeko. Are gehiago, ikasleei, etorkizuneko langileei, ez zaie batere erraztasunik jartzen euskaraz ikastea hautatzen dutenean. Osasun sailera urterik urte bideratutako ehunka kexek edota eskubide-urraketa larriak gertatu izanak, ez du izan eraginik horien konponbiderako neurri edo mekanismoak abian jartzeko unean.

Zenbakia: 77/2001	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	
Arrazoia:	OSAKIDETZAK Getxon duen osasun zentroan dagokion medikua euskalduna izatea eskatzen du.	
Zenbakia: 03/2002	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Gipuzkoa
Arrazoia:	Arantzazu ospitalean zerbitzua euskaraz lortzerik ez zuen izan ez sarrerako informazio-zerbitzuan, ez Administrazioan, ez ginekologia sailean, ez eta kafetegian ere.	
Zenbakia: 381/2004	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Gipuzkoa
Arrazoia:	Donostia ospitalean odol analisia egin zuen ekainean. Emaitzak gaztelania hutsean igorri dizkiote. Erakundearen izena soilik ageri da ele bitan.	
Zenbakia: 315/2005	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Araba
Arrazoia:	Maiatzaren 31n, goizeko 9ak aldera Txagorritxu Ospitaleko zentralitara deitu eta harrera egin zion langilea gaztelaniaz oldartu zitzaion herritarrari euskaraz zuzentzeagatik. Euskaraz harrera egiteko inor ez ote zegoen galdetuta, ezetz erantzun zioten.	
Zenbakia: 339/2005	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Gipuzkoa
Arrazoia:	Zestoako pediatria erdalduna denez ez dago pediatria zerbitzuak euskaraz jasotzerik	
Zenbakia: 189/2007	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Bizkaia
Arrazoia:	Zamudioko osasun-etxera deitu du herritarrak, alabatxoaren pediatrarekin zuten hitzordua aldatzeko asmoz. Telefonoa hartu duen andrearekin euskaraz hasi denean, berak: "en erderas, por favor" erantzun dio. Euskaldunik ez ote zegoen galdetu dio herritarrak, eta berak "sí, pero ahora no" erantzun dio zakar samar. Hala, hitzordua aldatzeko gaztelaniaz hitz egin behar izan du.	
Zenbakia: 130/2009	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Bizkaia
Arrazoia:	Osakidetzaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzako Hautaketa Zerbitzura (945 00 61 50) deitu zuen urtarrilaren 20an, 2008ko EPEn inguruko galdera egiteko, eta herritarrak euskaraz egin arren gaztelaniaz eman zizkioten azalpenak.	
Zenbakia: 1194/2010	Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila - Osakidetza	Gipuzkoa
Arrazoia:	2010eko abenduaren 22an, goizeko 11:22an, dei bat jaso nuen Santiago Ospitaleko aurpegi-masaileko kirurgia departamentutik. Ospitaleko langileak pazientez galdetu eta bera nintzela erantzun nion euskaraz. Ospitaleko langileak tonu zakar batean esan zion gaztelaniaz hitz egiten ez bazuen telefono deia etengo zuela. pazienteak euskaraz galdetu ea ulertzen zuen eta berak, berriz ere, gaztelaniaz hitz egiten ez banuen telefono deia eten egingo zuela mehatxu eginez erantzun. Pazienteak berriro ulertzen zion galdetu eta ondoren langileak hitzez hitz honakoa esan erantzun: <i>Cuando decida usted hablar en español yo le llamaré por teléfono</i> . Horren ondoren eskegi egin zuen. Deiak 51 segundo iraun zituen. Horren ondoren ez du dei berririk jaso eta haginak kirurgia bidez ateratzeko beharrean dago.	

Gogora ekarri nahi dugu Osakidetzak milaka lanpostu betetzeko deialdiak egin dituela azkeneko 10 urte hauetan. Osakidetza euskalduntzeko 2003/27 dekretua indarrean sartu arte, lan-deialdi guztietan, euskara meritu gisa baloratzera mugatu da, eta 1989ko Funtzio Publikoaren legeak ezartzen duen minimoa baino ez du eskatu: %5a.

2005en Euskara Plana onartu ondoren, 2006an egin zen lan-deialdian eskatu zen lehen aldiz euskararen ezagutza zenbait lanpostutan. Zehazki 4.300 lanpostutik gorako lan-deialdian Derrigortasun Data zuten lanpostuak %23 izan ziren, baina azken finean lanpostu gehienetan euskara meritu gisa soilik, eta minimoa baino ez, baloratuz jarraitzen du Osakidetzak.

2008ko lan-eskaintza publikoak ere oso zantzu kezkarriak utzi zituen. Batetik oso lanpostu gutxiri ezarri zitzaielako derrigortasun-data; bestetik, ezarrita zutenetatik hainbati atzeratu egin zitzaielako data lekualdatze-lehiaketan.

Aski larria iruditzen zaigu euskaldunen eskubideen egoera OSAKIDETZAn, eta hortaz, euskarazko zein gaztelaniazko hautua bermatuko duen langileak elebiduna behar du izan.

10 urte hauetan Behatokiak kudeatutako datuek argi eta garbi erakutsi dute, herritarrak ahalegin handiak egin behar dituela Osakidetzarekin harremanak euskaraz izateko. Eskubideen bermatzaile izan beharko luketen instituzioek ez dute euskaldunen babeserako mekanismorik abian jartzen. Zentzu honetan, euskara ezagutzeko betekizunari ematen zaion garrantzia ez da nahikoa hiztunak euskara askatasunean erabiltzea bermatzeko, ez da nahikoa euskara zerbitzu hizkuntza, harreman hizkuntza eta lan hizkuntza izateko.

Administrazio publikoak euskalduntzea berebizikoa da euskararen normalizazioan eta uste dugu ez zaiola behar bezainbeste garrantzi eman eta ez dela behar beste aurreratu zentzu honetan. Administrazio publikoan, ezinbestekoa da zerbitzu guztietan euskarazko atentzioa bermatzea.

Justizia Arloa:

Behatokiak urte hauetan guztietan bideratu dituen kexek, erakusten dute EAEn justizia-Administrazioak ez duela ofizialtasun bikoitzaren printzipioa barneratu ez ahozko jardunean, ez jardun idatzian. Euskarak hizkuntza arrotza izaten jarraitzen du epaitegietan; oro har, hizkuntza nagusia, bakarra ez denean, gaztelania baita.

Hala, zenbait kasutan euskara hutsean aurkeztutako agiriak atzera botatzen dituzte edo haien itzulpena eskatzen diote herritarrari. Herritarrak agiriak euskaraz eskatzen dituen gainera, hilabete luzez atzeratu ohi dira eginbideak. Prozedurak gaztelaniaz abiatzen dira hasieratik bertatik (zitazioak, agiriak, aktak, epaiak...) Prozedura euskaraz burutzea nahi dutela adierazi dutenei ezinezkoa dela adierazten zaie, epaile, magistratu nahiz idazkariek euskaraz ez dakitelako, edota horretarako behar diren baliabide materialak (aplikazio informatikoak kasu) ez daudelako euskaraz lan egiteko prestatuta.

Jarraian egoera horren isla diren hainbat adibide:

Zenbakia: 40/2001	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	
Arrazoia:	Elkarte bat onura publiko izendatzeko paper guztiak euskara hutsez bidali zituen. Sail horretako arduradunak ez baitu euskaraz ulertzen, paper guztiak erdaraz ere bidaltzeko eskatu zion herritarrari, bestela, itzulpen zerbitzuagatik tramitazioa luzatuko baitzen.	
Zenbakia: 750/2002	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Donostiako Administrazioarekiko auzi-epaitegitik (1. epaitegitik) jakinarazpena gaztelania hutsean jaso du.	
Zenbakia: 324/2003	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Donostiako 3 zenbakiko instrukzio-epaitegiak zitazio-zedula igorri dio gaztelania hutsean. Ele bietan igortzeko eskatzean, epaitegira bertaratu behar dela adierazi diote herritarrari, bertan eskaera idatzia egin dezan.	
Zenbakia: 388/2004	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako leihatilan ezin izan zioten harrera euskaraz egin.	
Zenbakia: 431/2005	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarteko Segurantzza Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzatik gaztelania hutsean erantzun diote herritarrak euskaraz egindako eskaerari.	
Zenbakia: 666/2010	Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Herri-Administrazio Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusitik, Administrazioarekiko salatik, gaztelania hutsez idatzitako agiri bat bidali dute Gipuzkoako udal batera auzi bati buruzko espediente eskaera eginez.	

Haurrak euskaraz erregistratzeko eskubideari dagokionez, esaterako, legeak 2005an erregistroetako idazpenak euskaraz egiteko eskubidea aurreikusi bazuen ere, gaur egun oraindik eskubidea eta legea bera urratzen dira, hartarako beharko lirartekeen bitartekoak partzialki baino ez direlako implementatu.

Zenbakia: 421/2003	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	2003ko abuztuan Gernikako Erregistro Zibilera joan zen haurra inskribatzera eta inprimakia gaztelaniaz eman zioten. Euskarazkoa ote zegoen galdetuta, ez zegoela adierazi zitzaion, itzultzeko denborarik ez dutelako-	
Zenbakia: 248/2010	Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Herri-Administrazio Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	Igorreko Bake Epaitegian euskaraz inskribatu nahi izan zuten haur jaioberria, baina ezin izan zuten beren eskubidea gauzatu horretarako bitartekorik ez zegoelako.	
Zenbakia: 397/2010	Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Herri-Administrazio Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	Bermeoko Bake Epaitegian euskaraz inskribatu nahi izan du seme jaioberria. Ezin dela erantzun diote, euskaraz inskribatu ahal izateko bitartekorik ez dutela.	
Zenbakia: 656/2010	Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Herri-Administrazio Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	Bermeoko Bake Epaitegian euskaraz inskribatu nahi izan du seme jaioberria. Ezin dela erantzun diote, euskaraz inskribatu ahal izateko bitartekorik ez dutela.	

Ondorioz, eskubideen urraketa sistematikoa da, edozein dela ere arrazoa edo zioa, gaztelaniaz egiten baitira jardunbide guztiak, eta herritar euskaldunei, propio eskatuta ere, ez baitzaie bermatzen hizkuntza-hautua. Honenbestez, urterik urte errepikatu dira hizkuntza-eskubideen urraketak.

Herrizaingo Saila

Herrizaingo saila beltzune bezala agertu ohi da Behatokiaren diagnosian, herritarren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzeaz gainera, euren eskubidea aldarrikatzen duten herritarrekiko erakusten duen jarrera oldarkorragatik.

Urteak joan urteak etorri, errepikatu egiten dira herritarrek Ertzaintzak euren hizkuntza-eskubideak errespetatu edo bermatu ez dizkielako egiten dituzten kexen zioak: salaketa-agiriak gaztelania hutsean idatzita, jakinarazpenak gaztelania hutsean idatzita, ahozko zerbitzua euskaraz eman ezina, herritarrei zuzendutako ohar eta jakinarazpenak gaztelaniaz idatzita, isunak gaztelaniaz beteta... Herritarrekin harremana euskaraz ez bermatzeaz gain, agenteen tratu zakarra eta nagusikeria izan dira herritarrek gehien salatu dituzten jokabideak.

Zenbakia: 66/2002	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila	Gipuzkoa
Arrazoa:	Orain dela sei hilabete Tolosako ertzaingoa etxera joan eta ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso. Are gehiago, gaztelaniaz egiteko eskatu zioten. Hurrengo hilean, Antiguako ertzaingoa etxean gauza bera gertatu zitzaion. Urtarrilean bi ertzaingoa bere tailerrera gerturatu ziren ertzaingoa etxetik pasatu behar zuela jakinaraztera. Jakinarazpena gaztelania hutsean izan zen eta, berriz ere, Antiguako ertzaingoa etxera bertaratu zenean ezin izan zioten euskaraz ulertu.	
Zenbakia: 227/2003	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila	Gipuzkoa
Arrazoa:	2003ko maiatzaren 15ean eguerdiko ordu biak aldera Easo kalean dagoen Ertzaingoa etxera bertaratu zen baimen bat eskatzera. Zerbitzua ezin izan zuen euskaraz hartu.	
Zenbakia: 226/2006	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila	Nafarroa
Arrazoa:	Martxoaren 14an Herrizaingo Sailetik gaztelania hutsean bidali diote herritarrei euskaraz aurkeztutako helegitearen ebazpena	
Zenbakia: 181/2009	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila	Araba
Arrazoa:	Herrizaingo Sailak martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako parte hartzeari buruzko datuak biltzeko orria bidali zuen Arabako udal batera. Orria gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 679/2010	Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila	Bizkaia
Arrazoa:	Maiatzaren 31n lapurreta baten salaketa jarri zuen Bilboko Ibarrekolandako ertzaingoa-etxean. Herritarrek ertzaingoi euskaraz egin bazien ere, gaztelaniaz luzatu zioten salaketaren kopia.	

2008an iraungi zuen Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko abian jarritako Dekretua eta gaur da eguna Dekretu berririk indarrean jarri ez dena. Herritarren euskara baliatzeko eskubidea urratzeaz gain, eremu horretan izaten diren gertaera larriak konpontzeko mekanismorik ez da abian jarri.

Eremu nagusi hauetaz ez ezik, **Lan eta Gizarte arloan, Ogasuna eta ekonomian, Hezkuntzan eta Kulturen** Behatokian jasotako kexek egiaztatu egiten dituzte gabeziak eta, ondorioz, Administrazioarekin euskaraz jarduteko sortzen diren zailtasunak. Eskubide urraketa ahozko harremanetan zein idatzizkoetan ematen dira eta zenbaitetan Administrazioarekin euskara erabili nahi izateak alboko kalte ondorioak eragin dizkie herritarrei.

Zenbakia: 154/2002	Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatoriotik eskutitza jaso du gaztelania hutsez. Halaber, eskutitz horren eranskin gisa Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren Fundazio Pribatuak 2002/2003 ikasturteko sarrera proben inguruko txostena ere gaztelania hutsez jaso du.	
Zenbakia: 1250/2008	Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.	Bizkaia
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzak kontratatutako SGS enpresak segurtasunari buruzko galdetegia gaztelania hutsean igorri die hezkuntza-saileko langileei.	
Zenbakia: 511/2002	Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU	
Arrazoia:	Kazetaritza ikasketak egin dituztela agertzen duten tituluak Donostiara bidaltzeko eskariak egin zituzten ele bietan. Ekainean tituluak Donostian daudela jakinarazteko bidali zizkieten eskutitzak gaztelania hutsean zeuden.	
Zenbakia: 44/2002	Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Donostiako Andia kalean Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak dituen bulegoetan ez zegoen langile publiko euskaldunik zerbitzua euskaraz emateko. Herritarrak gaztelaniaz egin behar izan zituen, ahoz eta idatziz, gestio administratibo guztiak.	
Zenbakia: 431/2005	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarteko Segurantzza Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzatik gaztelania hutsean erantzun diote herritarrak euskaraz egindako eskaerari.	
Zenbakia: 742/2002	Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	
Arrazoia:	2002ko abuztuaren 28an Enplegu eta Prestakuntza Sailera deitu eta ezin izan zioten harrera-zerbitzua euskaraz eman.	
Zenbakia: 339/2003	Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila - Lanbide	Gipuzkoa
Arrazoia:	www.lanbide.net webguneak enpresentzako eta langileentzako zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu horretan hainbat dokumenturen ereduak agertzen dira, bai eta dokumentu horiekin lotutako informazio juridikoa ere. Aipatu dokumentuak gaztelania hutsean daude: kontratuak, baimenak...	
Zenbakia: 1155/2010	Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Egailan/Lanbide	Gipuzkoa
Arrazoia:	Gaztelania hutsean idatzitako sms mezua jaso zuen Lanbidetik abenduaren 9an. Honela zioen: "000000X su demanda caduca el xx-xx-xxx. Renuevela en Lanbide.net, oficina o centro de Lanbide o en el 901112901 o 945160600. Huella XXXXX".	

Zenbakia: 882/2002	Eusko Jaurlaritz. Ogasun eta Herri Administrazio Saila.	Gipuzkoa
Arrazoia:	2002ko urriaren 14an 012 informazio telefonora deitu eta informazioa euskaraz nahi zuela esatean, telefonoa bitan eseki zioten. Hirugarren aldia, gaztelaniaz eskatu eta zerbitzua jaso zuen.	
Zenbakia: 257/2009	Eusko Jaurlaritz. Ogasun eta Herri Administrazio Saila. EUSTAT.	Bizkaia
Arrazoia:	Urtarrilaren 27 arratsaldean EUSTATen izenean lan egiten duen enpresa batetik etxera deitu zioten telefono bidezko inkesta egiteko. Galdeketa gaztelania hutsean izan zen. Herritarrak euskaraz egin nahi zuela esan zienean, langile bakarrak zekiela euskaraz eta hura goizez bakarrik egoten zela esan zioten.	

Urte hauetan guztietan gabezia eta beltzuneak non diren helarazi zaien arren, urraketen aurrean ez-ikusiarrena edo egiten jarraitu du Administrazioak. Horrela, ondorio orokor modura, esan dezakegu neurri eraginkorragorik hartu ezean, nekez bermatu ahal izango dituztela EAEko agintariek herritarrek aitortuak dituzten hizkuntza-eskubideak.

Administrazio publikoak euskalduntzea berebizikoa da euskararen normalizazioan eta uste dugu ez zaiola behar bezainbeste garrantzi eman eta ez dela behar beste aurreratu zentzu honetan. Administrazio publikoan, ezinbestekoa da zerbitzu guztietan euskarazko atentzioa bermatzea

4.4. ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Estatuko lurralde batzuetan ezarri den ofizialtasun bikoitzaren printzipioak bi hizkuntzen arteko, eta ondorioz, hizkuntza bat zein bestea erabili nahi duten herritarren arteko berdintasuna bermatu beharko luke. Halere, hori ez da horrela, ez eguneroko bizitzan, ez eta ikuspegi juridikotik ere. Espainiako estatuko Administrazioak ez du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen koofizialtasuna errespetatzen. Eta horren erantzukizuna Konstituzioan bertan jasotzen duen gaztelaniaren derrigorrezko ezagutzan aurkitzen dugu.

Zenbatetan gertatu zaigu gure hizkuntza-eskubidea aldarrikatu eta “*Tú ya me entiendes, porque tienes el deber de conocer el castellano*” bezalako erantzunak entzun behar izatea? Finean, askotan erabili da Konstituzioaren artikulua hori gure hizkuntza-eskubideei muzin egiteko. Horrela Administrazioetan herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak bermatzeko duten gaitasun-eza estaltzeko, herritarren betebeharrak dituzte gogoan.

10 urte hauetan, Estatuaren eskumeneko hainbat esparru eta erakundeetan aurkeztu dituzte kexak herritarrek: Barne Ministerioa, Justizia Ministerioa, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala -INSS-, Estatistikako Institutu Nazionala -INE-, Enpleguko Institutu Nazionala -INEM- eta baita Estatuaren erakunde autonomiadunen artean ere: Posta eta telegrafoak eta RENFE. Kexak Estatuan euskaraz hitz egiten den lau lurraldeetako biztanleek bidali dituzte eta antzeko moduan gertatu dira lurralde horietan guztietan.

Jasotako kasuek nahiko esanguratsuak dira, Estatuako administrazioek eta horien erakunde autonomiadunak euskaldunen hizkuntza-eskubideei buruz duten jokaera ikusteko. Behatokian jasotako kexek egiaztatzen dute Estatuak ez duela bermatzen Administrazioarekin euskaraz ahoz zein idatziz jarduteko eskubidea eta gertaera batzuk behin eta berriro errepikatzen dira.

Barne Ministerioren menpe dauden administrazioei zuzendutako kexek agerian uzten dute ez dela kontuan hartzen euskararen erabilera, ez eta herritarrek Administrazioarekin jarduteko erabili nahi duten hizkuntza aukeratzeko eskubidea ere. Esate baterako, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ohikoa da gaztelania hutsez bidaltzea zehapenei buruzko jakinarazpenak legeak hizkuntzari ofizialtasuna aitortzen dion eremuetan ere (1797/2002, 444/2004, 357/2006, 261/2008, 331/229, 517/2010) edo gaztelania hutsez erantzun die herritarrek euskaraz irekitako espedientei.

INEM erakundeari ere kexa ugari zuzendu zaizkio arrazoi beragatik, hau da, informazioa gaztelania hutsez bidaltzeagatik.

Zenbakia: 3/2001	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INEM	
Arrazoa:	INEMeko Errekaldeko bulegoan (Bilbo), txartel elebidunek akats ortografikoak agertzen zituzten. Aldatzeko eskatu zuen. Horren ostean, akatsa zuten txartelak kendu eta berririk ez dute jarri.	
Zenbakia: 193/2002	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INEM	Gipuzkoa
Arrazoa:	INEMek bidalitako zenbait dokumentazio eta jakinarazpen gaztelania hutsean daude idatzita, hain zuzen ere, lan/eskaintza baten ingurukoa eta INEMek Lasarten eskaintzen dituen ikastaroen ingurukoa.	
Zenbakia: 34/2003	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INEM	Gipuzkoa
Arrazoa:	INEMek bidalitako zenbait dokumentazio gaztelania hutsean dago idatzita, hain zuzen ere, lan/eskaintza baten ingurukoa.	
Zenbakia: 574/2008	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INEM	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko Herrialde Zuzendaritzatik igorritako Resolución de aprobación de las prestaciones por desempleo izeneko dokumentua gaztelania hutsean jaso zuen uztailaren hasieran.	

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari ere hainbat eta hainbat kexa zuzendu zaizkio agiriak gaztelania hutsez igortzeagatik eta interneteko zerbitzuan herritarrei euskarazko agiririk ez eskaintzeagatik.

Zenbakia: 31/2001	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INSS	
Arrazoa:	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren altxortegi nagusiaren menpeko Gipuzkoako probintzia zuzendaritzak <i>Comunicación de bases de cotización</i> informazio zehaztapena eta Gizarte Segurantzaren estatuko idazkariak sinatutako gutuna bidali dizkie, dena gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 87/2003	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INSS	Nafarroa
Arrazoa:	TGSS erakunde publikoak Gipuzkoako herritar bati "Informe de vida laboral" izeneko dokumentua igorri dio gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 222/2006	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INSS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Martxoaren 15ean Espainiako Gizarte Segurantzak erretiroaren aurre/kalkulua egiteko eskatu ondoren, martxoaren 21ean gaztelania hutsean igorri diote erantzuna eta aipatu aurre/kalkulua	
Zenbakia: 141/2007	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. INSS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gaztelania hutsean bidalitako gutunean ohar bat ageri da posdata moduan, gutuna hizkuntza koofizialean irakurri nahi izanez gero, internetera jo daitekeela esanez. Webgunean sartu eta hona agertu zaion mezua: "2007ko goratzea. Sartu nahi duzun orria ez dago zuk aukeratutako hizkuntzan eskuragarri. Barkatu eragozpenak."	
Zenbakia: 926/2010	Gobierno de España. Ministerio de Trabajo e Inmigración. TGSS	
Arrazoa:	Iruñeko herritarrek Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusiak igorritako gutuna jaso du. Langileak informatzeko kanpainaren berri emateko gutuna, inprimakia, lan/bizitzaren agiria eta kotizazio oinarriak ez daude euskaraz idatziak, gaztelania hutsean baizik.	

Estatistika Institutu Nazionalak ere EAE eta Nafarroako herritar eta enpresei bidalitako agiriak eta derrigorrez bete beharreko inkestak gaztelania hutsean bidaltzen ditu.

Zenbakia: 49/2001	Gobierno de España. Ministerio de Economía y Hacienda. INE	
Arrazoa:	Estatistika Institutu Nazionalaren ordezkartzak bidali dion dokumentazio osoa gaztelaniaz dago.	
Zenbakia: 690/2002	Ministerio de Economía y Hacienda. INE	Bizkaia
Arrazoa:	INEk bidali dion betebeharreko inkesta, "Índices de comercio al por menor", gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 568/2004	Ministerio de Economía y Hacienda. INE	Nafarroa
Arrazoa:	INE erakundeak gaztelania hutsean bidali dio herritarrari inkesta derrigorrez bete beharrekoa dela gogorarazteko jakinarazpena.	
Zenbakia: 481/2008	Ministerio de Economía y Hacienda. INE	Gipuzkoa
Arrazoa:	INE erakundetik galdetegi bat betetzeko eskaera jaso dute Gipuzkoako enpresa batean. Argibideak ematen dituen gutuna eta galdetegia bera ere gaztelania hutsean daude.	

Estatuko posta eta telegrafoen zerbitzuak ere, inprimakiak eta jakinarazpenak gaztelania hutsez bidaltzen ditu.

Zenbakia: 112/2002	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Gipuzkoa
Arrazoa:	Irungo postetxetik heldutako jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita zegoen.	
Zenbakia: 599/2004	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Nafarroa
Arrazoa:	CORREOS enpresak burofaxak bidaltzeko inprimakiak gaztelania hutsean ditu.	
Zenbakia: 15/2008	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Nafarroa
Arrazoa:	Postaria gutun ziurtatuarekin etxera joan zen unean herritarra bertan ez zegoenez, CORREOSek Iruñeko Sarasate pasealekuan duen egoitzara joan behar duela adierazten duen iritsiera/jakinarazpenaren oharra gaztelania hutsean jaso du postontzian.	
Zenbakia: 245/2010	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Bizkaia
Arrazoa:	Bilboko posta bulegoetan txanda zenbakia hartzeko papertxoetako testua gaztelaniaz baino ez dago idatzia: Espere su turno eta Tire.	
Zenbakia: 23/2010	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Gipuzkoa
Arrazoa:	CORREOSek gutunazalei ezartzen dien frankeoko zigiluaren testuak gaztelania hutsean daude. Franqueo pagado en oficina, Paquete azul. Paquete a domicilio. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren izendapen ofiziala ere ez du errespetatzen, Guipúzcoa ageri baita.	
Zenbakia: 929/2010	Gobierno de España. Ministerio de Fomento. Correos y Telégrafos	Gipuzkoa
Arrazoa:	CORREOSen Donostiako bulego nagusian gaztelania hutsean luzatu diote ordainagiria	

Behatokiak bidalitako kexen harira, asko izan dira kexa horiei erantzuteko Espainiako Estatuko Administrazio zenbaitek erabilitako argudioak:

Es necesario, llegados a este punto, recordar adicionalmente que de acuerdo con el artículo 3.3 de la Constitución, todos los ciudadanos españoles tienen el deber de conocer y el derecho de usar la lengua castellana, por lo que ésta constituye un instrumento válido y eficaz para hacer llegar a todos los ciudadanos españoles contenidos informativos como los que Vd. menciona. Defensor del Pueblo de España. 01-12-2008.” (1)

Atendiendo a la queja vertida en la Hoja número 6 [...] manifestar que el uso del eusquera es un derecho, y como tal se ejerce voluntariamente, no pretendamos hacer del ejercicio de un derecho, una obligatoria imposición. Ministerio del Interior de España. 22-05-2008”. (2)

Los carteles se colocan en la oficina de atención a ciudadano pretenden informar de manera clara, rápida y sencilla. La proliferación de carteles, idiomas o trámites, producen el efecto contrario, originando confusión entre la ciudadanía. Ministerio del Interior de España. 22-05-2008.” (3)

Azkenik, Justiziaren eremuak eragin ditu Estatu mailako hizkuntza-eskubide urraketarik larrienak, izan ere, eskumen handienak bere gain daude.

Epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialen jarduera arautzen duen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 321 artikulua araberako gaztelania erabiliko dute prozeduretan, eta berezko hizkuntza ofiziala duten Autonomia Erkidegoetan bigarren hori ere erabili ahal izango dute, aldeetako bakar batek ere hizkuntza hori ezagutzen ez duelako babesgabatasuna alegatzen ez badu.

Epaile, magistratu eta idazkari judizialei ez zaie gaztelania ez diren berezko hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza eskatzen berezko hizkuntza ofizialak dituzten erkidegoetan jarduteko. Ez hori bakarrik, legeaz berezko hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutzarik eskatzen ez duenez, funtzionarioek berezko hizkuntza jakin arren uko egin ahal diote gaztelania ez den beste hizkuntza ofizial bat erabiltzeari.

Horrela, Espainiako Estatuan indarrean dagoen legeriak justiziaren eremuan hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa juridikoki ahalbidetzen du, gaztelania jakiteko derrigortasuna euskaldunon hizkuntza-eskubideak urratzeko aitzakia bihurtzen da, eta ez dira kontuan hartzen ez eta nazioartean indarrean dauden itunek ezartzen dituzten gutxieneko konpromisoak ere.

(1) Puntu honetara helduta, gogoratu behar da gainera Konstituzioaren 3.3 artikulua bat, Espainiako hiritar guztiak gaztelania ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutela. Beraz, hizkuntza hori tresna baliagarri eta eraginkorra da espainiar hiritar guztiei zuzen aipatu duzun informazioa helarazteko.

Espainiako Herri Defendatzailea. 2008-12-01

(2) 6. orrian jarritako kexari erantzuna emanez [...] esan dezagun euskara erabiltzea eskubidea dela, eta, horrela, borondatez egikaritzen dela. Ez dezagun eskubidezko jardura derrigorrezko inposizio bihurtu. **Espainiako Barne Ministerioa. 2008-05-22**

(3) Hiritarren arretako bulegoan jartzen diren horma-irudiek informazioa argi, azkar eta erraz ematea dute helburu. Horma-irudiak, hizkuntza edota izapideak ugaritzeak alderantzizko ondorioak dakartzatza, hiritarren artean nahasmendua sortuz. **Espainiako Barne Ministerioa 2008-05-22**

Euskaldunok justizia Administrazioan bizi dugun egoera larriaren gertaera adierazgarria eman zen 2006. urtean. Izan ere, Bilboko Zigor Arloko 4. Auzitegiko epaile batek, sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion Gernikako herritar bati, soilik euskaraz eta interpretarik gabe deklaratzeko eskubidea zuela aldarrikatzeagatik. Herritarra, istripu baten lekukotza ematetik akusatu izatera igaro zen hizkuntza eskubideak aldarrikatzeagatik. Euskara erabili nahi izateak kartzela zigorra ekar dezakeela egiaztatu ahal izan dugu.


Justizia Administrazioan hizkuntza-eskubideak urratzean beste oinarrizko eskubide batzuk ere urratzen dira, esate baterako: babes judizial eraginkorra jasotzeko eskubidea, edo legearen aurrean denak berdinak izateko eskubidea. Justiziaren eremuan, urterik urte kexen zioak berdinak izaten jarraitzen dute.

Herritarrak Behatokira helarazi dituen kexak aztertutik, honakoa ondorioztatu dugu:

- Kexen arrazoi nagusia Estatuko Administrazioek agiriak (jakinarazpenak, inprimakiak etab.) gaztelania hutsean bidali izana da. Halaber, hainbat administrazioen jarreragatik, euskaraz idatzitako agiriak ez dituztelako onartu, euskara hizkuntza ofiziala izan arren.
- Estatuko Administrazioekin ezinezkoa da ahozko harremanak euskaraz izatea. Gainera, kexa batzuetan azaldu da Administrazioak jarrera baztertzailera agertu duela argi eta garbi, biztanleek arreta euskaraz jasotzea eskatu dutenean.
- Hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, Estatuko Administrazioek Estatuan bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan indarrean dagoen legedia hausten dute.
- Estatuak hizkuntza-eskubideak urratzeak beste hainbat oinarrizko eskubide urratzea dakar, besteak beste Espainiako Konstituzioak onartzen dituen batzuk: Legearen arabera berdinak izatea (14. art.), auzitegietatik benetako babes jasotzeko eskubidea (24. art.), igarotze askatasuna, informazio askatasuna, etab.
- Egun, gero eta erabiliagoa den administrazio telematikoan, baztertu egiten dira euskara baliatu nahi duten herritarrak.

Ikus daitekeenez, azken hamar urteotan Espainiako Estatuko agintariak bermatu beharreko zerbitzu publikoetan ez dira neurri eraginkorrik bideratu herritarrek euskara erabili ahal izateko eta behar dituzten bitartekoak bermatzeko. Ez du ahaleginik egin euskaraz jardun ahal izateko.

Ondorioz, hizkuntza-eskubideen bermerako mekanismo juridiko administratibo berezitu eta azkarra ezarri beharra dago, gertatutako urraketei aurre egin eta haiek zuzentzeko.



Administrazioetatik kanpoko gizarte- -eragileak eta eremu sozioekonomikoa

- 5.1.** Ipar Euskal Herria
- 5.2.** Hego Euskal Herria
 - 5.2.1.** Nafarroako Foru Erkidegoa
 - 5.2.2.** Euskal Autonomia Erkidegoa

5.1 IPAR EUSKAL HERRIA

Ipar Euskal Herria, Frantziako Estatuko Administrazioaren menpe egonik, eta legez frantsesa ez beste hizkuntzarik aitortzen ez duenez, hizkuntza komunitate gutxiagotuetao hiztunen eskubideak ez dira jasotzen Frantziako Estatuko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei buruzko araubidean. Ondorioz, hizkuntza-eskubideen urraketak sistematikoak dira eta euskarazko harrera eskatzeagatik “hemen Frantzian gaude” edota telefonoa esekitzea bezalako jarrerak pairatu behar dituzte behin baino gehiagotan.

Kexen zioak askotarikoak dira, baina euskararen erabilera guztiz baztertzen dutenaren lekuko: banku-agiriak, kutxazain automatikoak, publizitate-euskarriak, ahozko zerbitzua, euskaraz betetako taloi edo txekeak atzera botatzea....

Zenbakia: 544/2006	Edmond Rostand Museoa	Lapurdi
Arrazoia:	Arnaga museoa bisitatzen joan ziren eta zerbitzu guztiak frantsesez edo gaztelaniaz ziren bakarrik, sarrera txartela, esku-orriak, bisita gidatuak....	
Zenbakia: 1202/2009	EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA	Lapurdi
Arrazoia:	EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK azaroaren 28an Miarritzeko Mediatekan antolatu duen <i>Euskal Herria Hortik Hara</i> dokumentalaren aurkezpenaren kariatara zabaldu afixa frantses hutsean da.	
Zenbakia: 964/2009	BAIONAKO EUSKAL MUSEOA	Lapurdi
Arrazoia:	Museoaren webguneak (www.musee-basque) ez du euskarazko bertsiorik, frantses hutsean da.	
Zenbakia: 543/2006	Le petit train de la Rhune	Lapurdi
Arrazoia:	Larrungo tren txikian zerbitzu guztiak frantsesez edo gaztelaniaz soilik eskaintzen dituzte: gidariak, leihatilako langileak ez dute euskaraz egiten. Sarrera-txartelak, eskuorriak eta paneletako informazioa ere frantses hutsean idatziak dira.	
Zenbakia: 273/2007	FRANCE TELECOM	Lapurdi
Arrazoia:	Angeluko saltegiaren dauden errotilu eta txartelak frantses hutsean daude.	
Zenbakia: 439/2008	COTEBASQUE.NET	Lapurdi
Arrazoia:	Frantses hutsean jaso zuen apirilaren 23en <i>Les focus de la Côte Basque</i> izeneko mezua.	
Zenbakia: 984/2009	AUTOROUTES DU SUD DE LA FRANCE	
Arrazoia:	Erakundearen webguneak ez du euskarazko bertsiorik, frantsesez eta ingelesez bai, ordea (www.asf.fr).	

5.2 HEGO EUSKAL HERRIA

Esan beharra dugu Estatu mailako hainbat arauk euskararen erabilera oztopatu egiten duela, autonomia erkidegoek gizarte bizitzako arlo ezberdinetan hizkuntza-irizpideak ezarri ahal izatea eragozten baitute, besteak beste, produktuen etiketetan, jabego intelektualean... Ordenamendu juridikoak hizkuntza jakin batzuen erabilera derrigortzen du arlo askotan, eta beste hizkuntza batzuk ere derrigorrez erabili beharrekoak izatea eragozten du. Horrela bada, Estatuak ez du euskara derrigorrez erabili beharra arautzeko aukerarik eskaintzen.

5.2.1. Nafarroako Foru Erkidegoa

Nafarroako Foru Komunitatean euskarak berezko izaera dauka. Estatus ofiziala, aldiz, lurraldearen eremu batean besterik ez zaio esleitu. 18/1986 Legeak ebatzi zuen zein herritan izango zuen ofizialtasunaren estatusa. Legeak III tituluan jaso zituen: erabilera normal eta ofiziala, irakaskuntza eta komunikabide sozialak. Baztertu egin zuen, beraz, bestelako erabilerak arautzeko aukera.

Zenbakia: 31/2002	E. LECLERC	Nafarroa
Arrazoia:	Gabonetan enpresak bere produktuak iragartzeko bidali dituen aldizkariak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 196/2003	CAPRABO supermerkatuak	Nafarroa
Arrazoia:	CAPRABO supermerkatuetako hizkuntza paisaian euskarak ez du tokirik.	
Zenbakia: 821/2006	ALBAL	Nafarroa
Arrazoia:	ALBAL ontzi hermetikoekin batera datozen jarraibideak eta produktuen katalogoa gaztelaniaz eta frantsesez idatzita daude, baina ez euskaraz.	
Zenbakia: 736/2005	MOVISTAR	Nafarroa
Arrazoia:	MOVISTAR enpresak fakturarekin batera bidali dion informazio/orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 846/2010	FONTANERIA URIBE	Nafarroa
Arrazoia:	Lakuntzako FONTANERIA URIBEk esku-orria banatu zuen ekainean Sakanako etxeetan eskaintzen dituen zerbitzuen berri emanez. Esku-orria gaztelania hutsean zegoen. Ez zen hitz erdirik ageri euskaraz.	
Zenbakiak:520/2010	MAPFRE	Nafarroa
Arrazoia:	Herritarrak autoaren aseguruaren kontratuari buruzko agiriak euskaraz nahi zituela jakinarazi zuen kontratua MAPFREekin sinatu zuenean. Hala ere, gaztelania hutsean jaso du poliza berritzeko bidali dioten jakinarazpena, ez diote abizenen euskarazko grafia errespetatu, eta bizi den herriaren izen ofizialaren grafia ere ez dute errespetatu.	

Zenbakia: 493/2008	INSTITUTO INNOVACARNE	Nafarroa
Arrazoa:	Webgunea gaztelania hutsean dago, berezko hizkuntza ofiziala duten Estatuko Autonomia Erkidegoetako IGP zigilua duten haragien berri ematen badu ere. Euskal Herriko zigiludun haragiei buruzko informazio guztia gaztelania hutsean dago. Ez da hitz erdirik ageri euskaraz.	

Bestalde, 2006an onartu zen 7/2006 Legea, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa. Bertan, lau titulutan biltzen da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako araudia:

- I Oinarrizko xedapenak
- II Kontsumitzaileen eskubideak
- III Kontsumitzaileen eskubideen babeserako mekanismoak
- IV Zehatzeko ahalmena

Hartara, hizkuntza-eskubideen inguruko aitortzarik ez du egiten, ez eta Legean zehar aitortutako eskubideen hizkuntza-irizpidea landu ere. 7/2006 Legeak ez die inolako aitortza bereziturik egiten nafar euskaldunei. Nafarroako Administrazioek ez dute inolako hizkuntza irizpiderik ezarri nafar kontsumitzaileen eskubideei dagokionez.

Berriz ere, Nafarroako Gobernuak ikusezin bihurtu ditu Nafar euskaldunak, bai eta eskubidez gabetu ere.

Zenbakia: 973/2002	IWER	Nafarroa
Arrazoa:	eraikinetako kanpo sernalizazioan eta barne errotulazioan euskara ez da kontua hartzen	
Zenbakia: 224/2005	LA TIENDA DEL ABUELO	Gipuzkoa
Arrazoa:	LA TIENDA DEL ABUELO dendak argitaratzen duen informazio esku/orrian ez dago euskararen arrastorik.	
Zenbakia: 1199/2007	AZYSA	Nafarroa
Arrazoa:	Azaroaren 10 arratsaldean Iruñeko autobus geltokian autobusen heldueren berri ematen zuten pantailetan <i>Vitoria</i> eta <i>S. Sebast.</i> soilik ageri ziren.	
Zenbakia: 1112/2009	CYCLOCOM	Nafarroa
Arrazoa:	Erakundearen webguneak (www.cyclocom.fr) ez du euskarazko bertsiorik.	
Zenbakia: 1/2005	BESTE IRUÑA	Nafarroa
Arrazoa:	Beste Iruñak antolatutako san Silvestre lasterketaren ondoren parte hartzaileei banatutako oroigarrietan euskara ez da ageri.	
Zenbakia: 1309/2009	PANDA MANAGEMENT	Nafarroa
Arrazoa:	Berri Txarrak taldeak joan den azaroaren 7an Atarrabiako TOTEM aretoan eman zuen kontzertuko sarrera/txartelaren atzealdeko ohartarazpen guztiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 1172/2007	VIVIR EN BARAÑAIN	Nafarroa
Arrazoa:	Barañainen doan banatzen den Vivir en Barañain izeneko egunkarian, Udalaren iragarkiak eta euskarari eskainitako orrialdean izan ezik, ez da euskararen arrastorik ageri. Argitalpenak 32 orrialde ditu.	

Aipatzekoa da Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak egindako txostenean, hain zuzen ere, Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren inplementazioa baloratzeko, eta eremu sozioekonomikoari lotutako bederatzi konpromisoetatik Nafarroan bat besterik ez dela betetzen ondorioztatu zuela. Horrela, Nafarroako Gobernuak kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunekiko duen jarrera diskriminatzailea da erabat.

5.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoa

Behatokiak urte hauetan guztietan bideratu dituen kexek erakusten dutenez, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa da administrazioetatik kanpoko eremuan eta, oro har, eremu sozioekonomikoan. Soziolinguistikoki euskaldunagoak diren eremuetako herritarrek joera handiagoa dute hizkuntza-eskubideen aurrean irmoago jokatzeko eta kexak helarazteko; soziolinguistikoki erdaldunagoak diren edota babes juridikorik ez duten eremuetakoek, aldiz, eskubidez gabeturik ikusten dute beren burua, hain zuzen ere, lege babesik ez dutelako edota eskubideen urraketa sistematikoa pairatzen dutelako.

Zerbitzua euskaraz jasotzerik ez izateak, hizkuntza-paisaiako elementuak gaztelania hutsean egoteak, ordainagiriak, eta fakturak euskaraz ez egoteak, hain maiz eta zabal banatzen duten publizitatea gaztelaniaz argitaratzeak, kexa egiten duten herritarrez harago, erabiltzaile guztiengan du eragina. Urteak joan, urteak etorri, eta salbuespenak salbuespen, merkataritza-gune eta kateek ez dute neurri esanguratsurik hartu publizitatean euskarari berdintasunezko trataera emateko.

Zenbakia: 75/2001	CARREFOUR	
Arrazoa:	CARREFOUR enpresak produktuak iragartzeko bidali dituen Ya llega la navidad eta Regalos que hacen soñar aldizkariak gaztelaniaz baizik ez daude.	
Zenbakia: 624/2004	GERTU	Gipuzkoa
Arrazoa:	Prestatutako jakiak banatzen dituen Gertu enpresak eskaintza orria gaztelania hutsean dauka.	
Zenbakia: 55/2004	VITAL DENT	Gipuzkoa
Arrazoa:	Vital Dent hortz-klinikak postontzietan utzitako publizitatea gaztelania hutsez ageri da.	
Zenbakia: 1065/2007	KAIKU/IPARLAT	Araba
Arrazoa:	Esne/kutxetan beste zenbait produkturen publizitatea egiteaz gain, deskontua egiteko txartela banatzen du. Publizitatea eta txartela gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 172/2009	ALCAMPO	Gipuzkoa
Arrazoa:	Urtarrilaren 5ean Oiartzungo saltokian ezin izan zuen harrerako langileetarik inorengandik zerbitzua euskaraz jaso. Herritarrak langile euskaldunarekin egon nahi zuela adierazi zien, baina zera esan zioten: Hala nahi bazuen, beste uneren batean joateko.	
Zenbakia: 396/2009	SABECO/SIMPLY MARKET	Bizkaia
Arrazoa:	Bilboko Amadeo Deprit kaleko Simply Market supermerkatuan errotulu, kartel eta ohar idatzi guztiak gaztelania hutsean daude.	

Zenbakia: 769/2009	SUPER AMARA	
Arrazoa:	Andoingo SUPER AMARA supermerkatuan zozketa bat antolatu zuten joan den maiatzean. Bezeroei zozketan parte hartzeko bete beharreko txartelak ematen zitzaizkien ordainagiriarekin batera kutxa batean sartzeko. Txartela bera, nola zozketaren berri ematen zuten supermerkatu sarrerako panelak, eta irabazleen panela guztiak gaztelania hutsean zeuden.	

Eremu sozioekonomikoan ez dugu urte hauetan guztietan aldaketa eraginkorrik nabaritu, alor hau euskalduntzeko guztia dago egiteke. Zio berdineko kexak bideratu izan ditu Behatokiak enpresei, eta zenbaitetan aldaketarako borondatea agertu badute ere, bestetan behin eta berriz gogorarazi digute ez dutela legezko derrigortasunik.

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei dagokionez, 6/2003 Legeak aitortu zizkion lehen aldiz hizkuntza-eskubideak, arlo pribatuan ere bermatu beharrekoak direla adierazi zuelako, eta propio jasotzen duelako hizkuntza eskubideen aitortza.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren gaineko Legea garatzea ahalbidetuko zuen Dekretua 2008ko uztailan onartu zuen Eusko Jurlaritzak. Dekretu horretan, besteak beste, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak kontuan hartzeko neurriak ezartzeko epeak ematen ziren, erakunde eta establezimenduei zuzenduta. Euskaldunon hizkuntza-eskubideak arian-arian eta progresiboki bermatuko direla dio eta aipatu epeen barruan hizkuntza-eskubideak bermatzen ez zituenak isunak edo zehapenak jasotzeko aukera aurreikusten zuen dekretuak.

Honako zerbitzu hauek ematen dituzten enpresa eta saltokiak aipatzen zituen, besteak beste: komunikazio enpresak, energia hornitzaileak, osasungintza, hezkuntza, garraio-bideak eta garraio-enpresak. Bada, 2010eko ekainean, Dekretuak jasotzen zituen bi puntu garrantzitsuren betekizuna urtebetez atzeratzea erabaki zuen Eusko Jurlaritzak: batetik, epeak zehazten zituena eta bestetik, dekretua urratzen zenerako neurriak ezartzen zituena ez dagoelako baldintza egokirik aplikatu ahal izateko. Ondorioz, hizkuntza-eskubideen inguruan egiten den aitortza bere horretan geratzeko bidea ireki zuen, errealitatean inolako islarik eman gabe. Legeak, urraketen aurrean neurriak aurreikusten ez badu ez du inongo baliorik izango. Arau betearazlerik ez izateak erraztu egiten baitu merkataritza-kate eta guneek eta interes orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek hizkuntza-eskubideak urratzea.


Gainontzeko arlotan bezala, eremu sozioekonomikoan eta gizarte-bizitzan hizkuntza-eskubideen bermatzaile nagusia izan beharko luke Administrazioa, borondatearen baitan uzten diren neurriek hizkuntza-eskubideen urraketa betikotu eta sistematizatuko arriskua baitago.

Eta hori frogatzen duten erantzunak jaso ditu Behatokiak dagoeneko. Hona hemen 378-2010 espediente zenbakiari emandako erantzuna:

“...los plazos de adaptación para el cumplimiento de las obligaciones establecidas han sido prorrogados por un año más por lo que no ha existido vulneración de la citada legislación”. (1)

Horrela bada, erregimen juridiko desberdinen mende egon arren, Euskal Herri osoko kontsumitzaile eta erabiltzaileek ezaugarri bat dute komunean: Euskal Herri osoan urratzen zaizkigu hizkuntza-eskubideak.

(1) *“...ezarritako betebeharrak egokitze epeak urtebetez luzatu dira, ondorioz, ez da aipaturako legeriaren urraketak gertatu”.*



Ondorioak

10 URTE, 11 ONDORIO

Euskal Herriko hiru lurralde administratibo ezberdinen hizkuntza-eskubideen egoeraren argazkiari begiratzen badiogu, kezkatu egoteko arrazoiak soberan ditugu. Lurralde bakoitzean, euskarak estatus ezberdin bat du eta eremu bakoitzean herritarrari aitortzen zaizkion eskubideak ere bai. Euskal Herriko lurralde ezberdinetan egoera ezberdinak ditugula kontuan izanda ere, esan dezakegu, lurralde bakar batean ere ez ditugula hizkuntza-eskubideak bermatuta euskaldunok.

Zoritxarrez, urte hauetako guztietako lanek ondorio garbi bat utzi dute: Euskal Herriko herrialde guztietan, Iparraldean nola Hegoaldean, eta administrazio maila guztiek, Estatu Administrazioak, administrazio autonomikoek eta toki administrazioek urratzen dituzte hizkuntza-eskubideak.

Kasu askotan, gainera, administrazioek beraiek onartutako eta beraien lurraldeetan indarrean dagoen hizkuntza-legeria ere ez dute betetzen, legea urratzen dute: konstituzioak, estatu mailako prozedura administratiboko legeak, erkidegoko hizkuntza legediak bai eta toki entitateetako ordenantzak ere. Horrela, hizkuntza-eskubideen urratze egoera garbia eta orokorra ageri zaigu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, testu juridikoetan hizkuntza-eskubideen aldarrikapena egiten den arren, hiltunen errealitatea oso bestelakoa da. Zalantzarik gabe, garrantzitsua da administrazioek bertako hizkuntzari ofizialtasun *statusa* aitortua izatea eta hizkuntza-eskubideak babesteko legedia indarrean egotea. Halere, ofizialtasunaren aitortzak edota legedia indarrean egoteak ez du esan nahi aski denik euskal hiltunen eskubideak bermatzeko.

Milaka erabilera-saiakera eragotzi da 10 urte hauetan. Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta eta nabarmenak dira sortzen diren ezintasunak.

Hizkuntza-eskubideen eta legeen urraketak gertatu izanak ez du izan eraginik horien konponbiderako neurri edo mekanismoak abian jartzeko unean. Horrela, erakunde publiko zein pribatuek hizkuntza-eskubideen bermea aintzat ez hartzearen ondorioz, herritarrak eskubidez gabeturik ikusten du bere burua. Naturalizatu egin da ordenamendu juridikoa ez betetzea.

Euskarari aitortzen zaion ofizialtasunari berme handiagoa eskaini behar zaio, orain arte baino baliabide eta bitarteko gehiago eskaini behar zaizkio gaztelaniarena bezain eragingarria izan dadin. Hizkuntza-eskubideak errespetatzeko betebeharra errealitatera ekarri beharra dago.

Nafarroako Foru Komunitatean, desoreka eta herritarren arteko eskubide desberdintasuna da nagusi eta biztanle guztiek berdintasunez, euskara bereganatzeko hizkuntza-eremuak ezartzen dituen banaketa administratiboa desagerrarazi behar da. Euskararen erabilera sozial eta ofizialerako, euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko oztopoa delako eta biztanle guztiek berdintasunez euskara bereganatzea eragozten duelako.

Euskararen normalizaziorako bitarteko bat izan behar zuen Vasuencearen Legeak, prozesu hori oztopatzeko tresna izan da. Nafarroako agintari politikoeak euskararen aurka garatutako dinamika juridikoak urrats handiak eman dituzte.

Nafarroako Gobernuak murrizketak egin ditu legez aitortuta zeuden hizkuntza-eskubideetan eta eskubide horiek sistematikoki urratzen dizkie herritarrei. Hizkuntza-politika murriztailea garatu du. Murrizketa antolatua eta planifikatua izan da eta eremu publiko instituzionalean euskararen erabilera murriztu ez ezik, zenbait kasutan desagerrarazi ere egin du. Murrizketa antolatua eta planifikatua da.

Honela, Nafarroan euskararen inguruan garatutako neurri juridikoak, euskararen normalizazioa bultzatzen baino oztopatzen jarraitzen du.

Ipar Euskal Herrian, berriz, Administrazio publikoaren esparruan euskarak ez du inongo errekonozimendu ofizialik. Estatuarengandik ukapen eta bazterkeria bizi dute egunero. Euskarak ikusezintasunean jarraitzen du Frantziako Estatuan. Haatik, ezinbestekoa da lege geriza euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatu nahi baditugu. Frantziako Errepublikak bere baitan diren hizkuntza gutxiagotuen eskubideak aitortu eta haien legezko babeserako nazioarteko estandarrak onartzea guztiz beharrezkoa da eta, hizkuntz komunitatearen beraren biziraupen kulturala jokoan dela kontuan hartuta, onarpen horrek berebiziko premia du.

2008ko maiatzaren 19an NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak gomendio berriak egin dizkio Frantziako Estuari Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna betetzearen inguruan. Behatokiak egindako eskaera guztiak bere egin zituen Batzordeak azken hausnarketa eta gomendioetan:

- Batzordeak kezka agertzen du gutxiengoen aitortza ofizial ezaren inguruan. Kultura-eskubideekin kezka ardura berezia agertzen du.
- Halaber, Batzordea ohartu da Estatuak ez dituela nahiko esfortzuak egin gutxiengoen edo eskualdeetako hizkuntzak babesteko eta sustatzeko. Are gehiago, aitortza formalik ez izateak hiztunen kopuruaren gainbeheran lagundu duela uste du Batzordeak.

- Batzordeak berresten du *berdintasuna* delakoaren printzipioa eta bereizkeria eragiteko debekua ez dela beti egokia giza eskubideen berme eraginkorra segurtatzeko. Hartara gomendioa egiten dio Konstituzioak gutxiengoaren inguruan duen jarrera berrikusteko, eta ofizialki onar dezatela gutxiengoaren taldeen edota kultura-aniztasuna bermatzeko beharra.
- 2001eko gomendioak berresten ditu Batzordeak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikuluan zen Haurren Eskubideen Itunaren 30. artikuluetan dituen oharrak kentzeko, Erregio edo Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa sinatu eta berresteko.
- Halaber, giza eta ekonomia baliabide nahikoa segurta dezala eskatzen dio Estatuari.
- Azkenik Konstituzioan gutxiengoaren edo eskualdeko hizkuntzen aitortza formala ezari dagokionez, Estatuaren jarrera berrikus dezala eskatzen dio.

Begi-bistan dago, honez gero, administrazioek eta instituzioek badutela nahikoa material egoera zertan den jakiteko eta aurrerantzean urrats berriak egitea ezinbestekoa dela gauzak aldatze aldera. Zoritxarrez, eta modu tematian, herritarrak behin eta berriz topo egiten du urraketaren harresiarekin, eta aski garbi dago, administrazioek urrats berriak eta eraginkorrak eman behar dituztela euskaldunak jasaten duten ezintasun-egoera honetatik ateratzeko.

Hizkuntz eskubideak oinarrizko hizkuntz eskubideak dira, alegia, ezin dira inola ere murriztu. Administrazio ezberdinek oinarrizko (giza) hizkuntz eskubideak ere urratu egiten dituzte, eta gogoan izan behar dugu Administrazioen ardura dela herritarren eskubideak bermatzea. Eskubide horiek bermatu ezean, beste hainbat giza eskubide ere urratu egingo dira: hezkuntza-eskubidea, babes judizial eraginkorra izateko eskubidea...

Hala ere ez da etsipenerako garaia, kezka handi bat azalera eta agerian utzi nahi dugu, baina herritarrak euskaraz bizitzeko duen borondatea eta egiten duen ahalegina zoriontzekoa da; euskararen alde hartutako konpromisoa garrantzitsua baita euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortzeko.